

# ttipi ttapa

2003ko uztailaren 17a • XXIII. urtea



## Pottokaren Eguna Saran hilaren 26an 04

Zortzigarren aldikoz antolatu da Pottokaren Eguna Saran. Egunazeta euskal abere honetaz aritu zaigu Battitte Laborde Pottoka Elkarteko saratarra.



## Mendi bizikletaz jausten txapeldun 28

Ekainaren 28an egin zen Igantzin Nafarroako mendi bizikleta jautsiera txapelketa. Xabi Telletxea elite mailan eta Miriam Blas nesketan izan ziren txapeldun.

## 03 40. urteurrena kantuz



Zure bainugelako obra...

**DOHAINIK**



**alkain**  
zeramikak eta bainuak

☐ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel. 943 64 52 54  
[www.alkain.com](http://www.alkain.com)

**B**erriaren plazerri beste bat gehitu diegu:

Zure bainurako materialak batere kostatu gabe erosteko aukera izatea.

Aurrekontua eskatzen diguzunean zuk erosten dituzun komunak, griferia, zeramika estaldurak, mobleak eta osagarriak (6.000 € bitartean) dohainik ateratzen ahal zaizkizu.

Informa zaitez eta goza ezazu plazer berri honetaz.



**UDALBILTZA<sup>®</sup>**

EUSKAL HERRIKO UDAL  
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

**UDALBILTZA<sup>®</sup>k,**

denon giza-eskubide guztien alde egonik,

Euskal Herriko herrien arteko senidetze

programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

[www.udalbiltzainfo.com](http://www.udalbiltzainfo.com)



DATUAK...

- **Baztandarren Biltzarren aurtengo edizioa berrogeigarrena den aitzakian diskoa ateri dute antolatzaileek.**
- **Diskoko abestiaren letra Jon Barberenak idatzia da. “M-n Ezten” taldeak grabatu du eta eskualdeko hainbat jenderen kolaborazioa izan dute.**
- **Maiatz hondarrean jarri zuten salgai diskoa «ez negozioa egiteko asmoz, oroigarri modura baizik, hiru euroko prezio sinbolikoan».**



J. BARBERENA eta J. BAILON *Baztandarren Biltzarra*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

# «Bertako jendearen inplikazioa lortu nahi izan dugu disko honetan»

Joseba OLAGARAI

**Aurten Baztandarren Biltzarrak 40 urte bete dituela eta, diskoa ateri duzue. Zer gisa burutazio hori?**

Egia erran nahiko kasualidadez izan zen. Bilera batean ginela batek bota zuen ea zergatik ez genuen kanta bat egiten. Hasieran erdi brometan hartu genuen baina azkenean aitzinera ateri dugu, seriozki hartuz eta lan aunitz eginez. Hasiera batean, lehenagotik ezagutzen dugun Urdiaingo Imanol Goikoetxearekin jarri ginen kontaktuan. Gure ideia azaldu genion eta gustatu egin zitzaion. Berak tema batzuk erakutsi zizkigun eta horien artean bat aukeratu genuen; alai eta besta girokoa zen bat. Behin doinua bagenuela, Jon Barberenak letra paratu zion eta azkenean hila-bete terdian ideia sortzetik kanta grabatua izatera pasatu zen. Grabaketa lanetan Beran egon ginen Maikelen eta berez kantua grabatu zuena “M-n Ezten” taldea izan baldin bazen ere, kolaborazio aunitz izan genituen. Musikagileak berak eskatu zuen bertako jendeak ahal zuen guziaz parte hartzeko eta adibidez Jo-

**«Kantuaren letran, denaren gainetik gure hizkuntza euskara dela eta horixe dela Baztango hamabortz herriak bat egiten dituen nabarmendu nahi izan dugu»**

nek egin zuen letra, bateria jotzen Elizondoko Fernando Leitza ibili zen, diseinu lanetan Totu Iturzaeta...

**Kantuaren letrak “Almandoztik Amaiurret bat gara” aipatzen du. Zer nolako erranahiarekin egin duzue?**

Argi geneukan Baztandarren Biltzarrako filosofia agertu behar genuela kantuan. Baztan zer den, bertakoak nor garen, 40 urtetan egin duguna eta oraindik egiteko duguna... eta noski, denen gainetik gure hizkuntza euskara dela eta horixe dela Baztango hamabortz herriak bat egiten dituen.

**Maiatzaren hondarrean paratu zuten salgai diskoa. Halere, zuen intentzioa ez omen da negozioa egitea...**

Ez. Hasiera batean, grabatu ondotik

kopia gutti batzuk bakarrik egiteko asmoa genuen, guretzako izateko gehienbat. Baina gero pentsatu genuen behin honetan sartuz gero edizio tiki bat egin behar genuela. Ez genekien 500 eta 1000 kopia egin eta honetan ententitzen dutenek erran ziguten 1000 kopia egin zitezkeela, eta halaxe egin dugu. Gure intentzioa ez da inondik ere negozioa egitea, diska hauek oroigarri modura saldu nahi baititugu, prezio sinboliko batean, 3 eurotan, gehienbat jendeak oroigarri modura izan dezan.

**40 urte Baztandarren Biltzarra antolatzen. Nork erranen luke hori hasiera hartan...**

Bai, nik uste hasiera haietan hasi zen inork ez zuela pentsatuko Baztandarren Biltzarreko besta harek horrenbertzeko arrakasta izaneren zue-nik. Baina hala ere urtez urte aitzinera egin dugu. Lan taldea beti aldatuz doa. Batzuk joaten dira eta berriak sartu... Azken finean, ilusio eta gogo haundiz egiten dugu eta berrogehi urte eginak baldin baditugu ere, espero dugu bertze berrogei edo gehiago ere egitea.



ARTXIBOKOA

Larrungo mazeletan pottokak aske ibiltzen dira. Primaderatik goiti, lau astetatik biltzen dira Azkaingoak, Oletakoak, eta Sarakoak, eta tratatzen dituzte eulien kontra, lakasten kontra eta nahi duenak zizarien kontra ematen die ahoan.

BERTAKO ARRAZAKO EHUN BEHOR BILTZEN DIRA

# Pottokaren Eguna zortzigarren aldiz eginen da Saran uztailaren 26an

**Orai zortzi urte, 1996an, hasi ziren Pottokaren Eguna ospatzen Saran. Konkurso nazionala izanik, Euskal Herriko eta Frantzia osoko ehun behor inguru biltzen dira: «Jujatzeko baduzu nahikoa» dio Battitte Laborde, Pottoka Elkarteak antolatzaileetako batek. Elkarte hau ez da oraikoa, 1970ean sortu zen, Paul Dutournier Sarako auzapeza zenaren lanari esker. Euskal Herriko zaldi arraza hau ez galtzea eta indartzea izan zen elkartearen sortzearen xedea. Elkarteak antolatzen duen Pottokaren Eguna uztailaren 26an izanen da aurten Saran.**

## Nerea MARTIARENA

Pottoka zer den jakiteko, zaldi honen historia eta ezaugarrietaz jabetzeko, Battitte Laborderekin solas egin behar da. Arraza bakarra izanik, hiru kategoriatan banatzen dituzte lparaldeko pottokak eta horren arabera jujatzen dute Sarako Pottokaren Egunean: «Bada mendiko potoka, sorotako edo pentzetako potoka eta hiru-

garrenei "livre B" erraiten zaie. Behar du ama potoka, eta aita izaiten ahal du araba edo zaldi odolekoa, eta horien bien umea Livre B erraiten zaio, bertzela die Livre A. Azken horiek dira potokak, besteak dira nahasiak. Badituzu beraz bi urtekoak mendikoak, sorokoak, livre B; hiru urtekoak berdin, etabar... Behorak umeekin, behorak umerik gabe eta orduan hel-

du da askora. Banazka pasa arazi eta sariak ematen dira berehala». Gero Herriko Etxeak zintzur bustitzea eskaintzen du eta haren ondotik 200 lagunentzat zikiroa bada. «Zikiroa batez ere hazkuntzan ari direnentzat da –dio Labordek– eta kanpotik ez da hainbeste jende, fite betetzen da 200 toki. Zikiroa egiteko Zugarramurdiko bi erretzaile etotzen dira. Atsaldean batzutan zaldiz edo potoken gainean egiten dute hurrek itzuli bat, beraz eguna 18:00ak arte irauten du».

Hazkuntzako jendea Garazitik, Heletatik, Azkaindik, Hendaia eta kosta bazter hortik etortzen da. Baina bada Euskal Herritik kanpotik ere Sarara etortzen dena: «Maiz batto Paue ondotik etortzen da, gaskoin bat... ez aunitz. Deretxoa dute Euskal Herritik kanpokoek etortzeko, elkarte nazionalak antolatzen baitu. Gainera, Pauen bada zaldien diputazionea, eta he-

## Battitte **LABORDE** Pottoka Elkartekoa



ARG.: NEREA

### “Pottokak, ttikia eta fierra izateaz gain, bazka gutti galdegiten du”

#### Nola antolatzen duzue Saran Pottokaren Eguna?

Goizean, muntatzen dugu dena 6:00etarako. 9:00ak arte heldu dira Euskal Herria guztiatik, eta Frantzia guztiatik, konkurtso nazionala baita.

9:00etan hasten da konkurtsoa bera eta banazka banazka pasa arazten dituzte eta jujatu. Gero adinetan jujatzen dituzte, orai eginen dituzte bi urtekoak eta denak pasatuko dituzte.

#### Zer laguntza izaten duzue

#### Pottoka Elkartekoez egun hau antolatzeko?

Eguna antolatzeko Sarako komertxantak eta ofizialeak eta gero 20 bat lagun biltzen gira hau dena muntatzeko. Erran behar da komertxanta eta ofizialeekin 70 bat sponsor direla, batzuek dirua ematen dute eta besteek kopak ematen dituzte. Denbora ederra egiten badu ostatu ttiki bat muntatzen dugu eta segitzen du ongi, beraz dirua egiten badugu ematen diogu asoziacione-ari.

#### Zein ezaugarri ditu pottoka on batek?

Potoka xuxenez erranen dut hamarretatik bederatzitan beltza da, gaztain iluna da. Beno, arrazan baduzu pintoa, xuri eta beltza edo xuri eta gorria eta saltzeko hau-

rrei gehiago gustatzen zaie pintoa beltza baino. Beno, aspalditik baduzu pintoa, badira erreportaiak eginak Bizkaiko leze famatu batzuetan badira pintoak murruetan marrazuak, beraz ez da orai-koa. Baina orain hemen alde huntan pinto aunitz atxemaiten duzu. Bestalde, orai Donostialdeko asoziacione batekin gurutzatzen gira, baina hoiiek nahi dute beltza bakarrik. Beltz beltza nahi dute, ez tinta xuri ez pitxik. Pottoka arrunt berexia duzu, zuk ere behin ikusten baduzu berexiko duzu, baditu pata fin-finak, baditu bere karakteristika, zinez begiratzeko diozularik badakizu pottoka dela. Behar du morfologia halako zehatza pottoka izateko. Lehen, atalan ibiltzen zen pottoka minetan ere erabiltzen zen. Ikatzka erabiltzen zuten lekutan ere erabiltzen zuten, fama handia zuen. Ttikia eta fierra baita pottoka, eta gainera bazka gutti galdegiten du.

men 'le haras' deitzen zaio. Han Pauen 'le haras nationale' deitzen zaio, han badie azpiko zaldi, potoka, zoko guzti-tako arraza guztiak, garañoak erraiten zaio. Beraz hek ere jujatzen dute egun hori. Obligatua zira denak gonbidatzera».

#### BABESTUTAKO ESPEZIEIA IZAN DA POTTOKA BOST URTEOTAN

Pottoka bost urtez babestutako espezieia izan da Iparraldean, baina orain ez da gehiago babestua eta buruileatik goiti jakinen da dirulaguntza ukanen duen edo ez. Laguntzarik ez dutela emanen iruditzen zaio Laborderi, «zeren orain European dena tiratzen dute beheiti». Gainera, pottokak balioa galdu duela uste du Labordek: «Pottokak ikaragarriko kalitateak baditu haurrak ibiltzeko, saltokak emateko... haurrentzat ona da baina umeak haunditzen dira eta zaldi haundia nahi dute gero, jende handia ez da ibiltzen ahal. Gero karrizan ere, atalan izigarriko polita da. Hasteko pintoa baldin bada, gustatzen zaio jendeari. Baina pottokak ez du baliorik, haurrak gainera ibiltzeko salgai jartzen dira, baina karnizeriko ez dute pitxik balio, ez dute aski hezurrik ez dute aski ipurdirik».

## POTTOKAREN HISTORIA

Orain dela milioi bat urte, Ipar Ameriketatik zetorren zaldia, Prewalski zaldiaren antzekoa, Siberiara emigratu eta Europara iristen hasi zen, aldi berean, Ameriketara desagertzen ari zelarik. Pottoka hain ziur Europako hego mendebalean ibiltzen zen zaldiaren oinordekoa dela erran genezake. Hala, Sarako eta Otxozelaiako leize zuloetan aurkitzen diren marrazkiak horren lekuko ditugu. Glaziazio garaian, pottoka uxatua izan zen eta gure mendietan babes biala etorri zen. Egoera ekologiko, historiko eta klimatikoak direla eta, pottokak eraldaketa morfologikoa bizi izan zuen, gaur egun ezagutzen dugun pottoka bihurtu arte. Hala ere, hainbeste urtez gure mendietan barna igaro ondoan nehork ez du dudan ezartzen pottoka hemen-go arraza primitiboa denik.

Euskaldunek ez zituzten pottoka taldeak sakabanatu eta beraz desager-

tarazi, beste eskualde batzuetan gertatu zen bezala. Guztiz alderantzizkoa gertatu zen, hau da, pottokaren hazkuntza bideratu zuten.

XIX. garren mendean, eskualdeko minetan erabiltzen zen pottoka, eta baita ere Frantziako ipar eta ekialdeko minetan ere.

Pottokaren altuera tti-kiatik eta bere indarragatik, baita bazka guttiko zaldia zelako, oso apreziatua zen pottoka horrelako lanetarako. Bestalde, asko erabilia izan zen kontrabandoaren garaian. Gaur egun, pottoka bakoitzak bere jabearen marka eramaten du. Aske bizi dira, hogeinakako taldetan, Larrun, Artzamendin, Baigura edo eta Ur suiako magaletan. Beste batzu soroe-tan hazten dituzte, kirol aktibitate edota denbora librean erabiltzeko. Asko zor diogu Paul Dutournier, Sarako auzapez zenari, 1970. urtean ANP elkar-tea sortu baitzuen, pottokaren ezagutarazteko eta babesteko.



Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidente:** Pello Apeztxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemaniel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Garajeen erabilpena gazteen aldetik eta herritarren kontzientzia

Etxeko lehendabiziko solairuan bizi garenok, gazteek elkartzeko erabiltzen duten garaje –edo bajera– horietako baten gainean, ongi dakigu nola molestatzten duten goraino jarritako muskak, bonboen burrunbak, bideo-jokuek eta haien inguruko oihu eta asotsek gauean.

Gazteek, doikebel, etxetik atera beharra dute arratsaldeetan, atera beharra dute aste hondarreen ere eta etxeko egongelan, telebista aitzinean baino libreago sentitzen diren toki batean elkartu; eta gurea bezalako eskualdean naski behar dute Udalak uztea komunaletatik zenbait orube, habitagarriak diren tokiak, diseinatzerakoan gazteen parte hartzea izanen dutenak eta herritik hurbil daudenak.

Gazteek erabilitako garajeetan sortzen diren asotsengatik kaltetutako barrideok elkarrekin sortu behar genduzko egoera udal agintarien aitzinean salatuz eta

beraiei arazoa konprenitzen laguntzeko eta hemendik irtenbide batera ailegatzeko.

Gazteei utzi edo errentan ematen dieten garajeen jabeek ez lukete arazoa saihestu behar, beraiei arduraz ez balitz bezala; edo etxean eri bat izanik horren gelaraino ailegatzeko diren asotsengatik zer egin ez dakitenak, esate baterako, egoeraren biktima izan beharrean errudunak balira bezala. Bertze aldera begiratzearren kontrako da arduraz hartzea, horregatik beharrezkoa da kontzientziako kanpaina abiatzea. Institutuko edo LHko irakasleek kontuan hartu behar dute gazte hauei herrikideenganako errespetua irakatsi behar zaiela edo bertenez akitu eta bake. Eta garajeetara joaten diren gazteen gurasoek –ni ere aita naiz– gure seme-alabekin solastu behar dugu eta errespetuaren garrantziaz ohartarazi.

Hondar hauteskundeetan, Virginia Aleman buru duen eta garaile suertatu zen EA-ak honela ematen zion hasiera bere programari: *“Honen alde egin eta borrokatuko dugu: 1) Baztandar guztien interesen defentsa*

*eta elkarbizitzarako eta begirunerako giroa mantentzea lbarreko hiritar guztien artean”*. Ea asmo polit honek baztandarrok lanean paratzen gaituen paper bustia edo deklarazio hutsa bihurtzen ez dadin.

J. Quintano (Elizondo)

### Berri onak eta esker milak

*“Lau hilabete pasatu dira egunkaria kendu zizuetenetik, kendu zigutenetik...”* orain dela gutxi horrela egiten zion agurra Berria egunkariari Martxelo Otamendik (...). Eta egia da, dagoeneko lau hilabete pasatu dira Egunkaria, euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarra itxi zutenetik. Lau hilabete hauetan Egunkariaren langileei esker ez dugu zulo handi hori sobera nabaritu, langileak arduratu baitira zulo hori Egunerordezko egunkariarekin tapatzen. Pozik egoteko berriak ditugu hauek. Are pozgarriago da jakitea itxi zuten Egunkaria horren tokia Berria egunkariak bete duela. Euskal Herriak erakutsi du kemena eta indarra eraso honi aurre egiteko, gauza izan da euskal-

dunok egun bakar batez euskarazko egunkariarik gabe gelditzea. Dударik gabe berri onak.

Eskerrak eman beharrean gaude hainbertze baztandarri, urdazubiari, zugarramurdiari beren sosekin, beren harpidetzekin proiektu berri hau aitzina ateratzen lagundu dutelako (...). Gure zonaldean 40 harpidetzatit goiti egin dira, itxi baino lehen Egunkariak zituenak baina aise harpidetza gehiago, doike. Eta ez hori bakarrik, proiektu berrirako 18.000 euro baino gehiago bildu da gure zonaldean, 50 €ko 85 akzio egin dira, eta 300 €ko bertze 22 akzio gehiago, dudarik gabe, ahal legin handia gure herritarrek egin dutena. Beude hemendik gure esker onak.

Azkenik aipatu behar dugu lehen epea bukatu bada ere, oraindik ere uda partean Berria karrikatzen laguntzen ahal dugula, harpidetza berriak eginik, akzioak erosten eta nola ez, eguneroko informazioa euskaraz jasotzen eta irakurtzen. Berria aitzina!

**Egunkariaren Aldeko Batzordea**  
(Miguel Asiain)

**OIZKO OSTATUA**



☎ 948 451 951  
☎ 948 450 168  
**OITZ (Nafarroa)**

## Orain egutegi berria: Egunero idekia, astelehena atsedeen eguna



- Karta
- Plater konbinatuak
- Pintxo berexiak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Menu berexiak



**5 logela bikoitz bainuarekin**



**50 lagunendako jangela**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2003-06-27

«Bada jendea Tourra ezin dela ura eta ogiarekin bukatu esaten duena. Bada nik esaten dut nik egin nuela eta egiten ahal dela deus ere hartu gabe».

«Elektroa egin ondotik, bihotzeko arazoak izan ote nituen galdetu zidaten. Nik bizi osoan txirindulan ibili nintzela erantzun nien. Tourraren ondotik bihotza aztertzeke esan zidaten eta arazoren bat banuen ospitalera hurbiltzeko. Horrek kezkatu egin ninduen, baina ez gehiegi ere».

Luis VICENTE OTIN  
Leitzako txirindulari ohia  
D.Navarra 2003-06-27

«Duela 50 urte, apez hasi nintzenean, erlijiotasun gehiago zegoen, baina ezberdina zen. Gaur egungo eliztarrek gehiago parte hartzen dute eta modu aktiboagoan bizi dute kristautasuna».

«Orduan apez gehiago izaten ziren, herri bakoitzeko bat gutienez. Iruñeko seminarioan mila seminarista baino gehiago ginen, baztandarrok autobusa alokatzen genuen etxera etortzeko, pentsa ezazu!».

Juan Felipe FRANCHEZ  
Amaiur-Azpilkuetako apeza  
D.Noticias 2003-07-01

• 11 GALDERA LABUR •

**Josune edo Totu?**

Lagunentzat Totu, ezezagunentzat Josune.

**Santioak edo Baztandarren Biltzarra?**

Baztandarren Biltzarra eta santioak aste tartzet, aste-buruan jende gehiegi.

**Baztan: Bat edo Hamabortz?**

Hamabortz zati dituen pastel bat.

**Hiru aldiz irabazi duzu Baztandarren Biltzarrako kartel lehiaketa. Zerk inspiratzen zaitu?**

Baztandarra izanik Baztan berak, pentsatzen dut.

**Zer da garrantzitsuagoa: teknika edo ideien on bat izatea?**

Ideia dudik gabe, baina egia da teknikak ere laguntzen duela.

**BKT eskubaloi taldean ari zara. Heldu den urtean lortuko duzue mailaz igotzea?**

Aurten azkenean ez dugu igotzea lortu, ea datorren urtean...

**Entrenatzailearen arrea izatea, mesederako edo kalterako?**

Entrenatzaile-jokalari bezala ez dut uste tratatu berexia dugunik, kanpoan anaia dut baina kantxa barrenean entrenatzailea. Dena den hori taldekideei galdetu behar!

**Eskubaloiaz gain, bertze kirolik?**

Uda partean bizikleta eta neguan noizbehinka eskia.

**Bidaiatzea gustatzen zaizu. Ezagutu duzun lekurik politena?**

Orain dela bi urte Kroazia bizikletaz egin genuen eta zoragarria iduritu zitzaidan.

**Eta ezagutzea gustatuko litzaizukeen leku bat?**

Patagonia, betiko ametsa.

**Bidaiatzeko, hankak, bizikleta, furgoneta, tren...?**

Furgonetan haraino eta han bizikletan.



**Totu ITURZAETA**  
Elizondoko diseinulari  
eta kirolaria

Altzate, 19-948630786 • BERA

GRUPO TANATOR O TA DEA

**IRACHE**

MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA**

**ZERBITZUAK**

DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan  
24 orduko zerbitzua beilatokian  
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo  
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404

☎ 900 704704

**bortzIRUDI**

BERA

KARTELAK  
KAMISETAK  
BISERAK  
TXISKEROAK

PLANOAK  
FOTOKOPIAK  
KOLAJETAN  
DIBUJALAK

ENKUADERNAZIOAK  
PLASTIFIKAZIOAK  
PAPERTEGIA

**NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUARENKIN**

Eztegara 26 behea **Tel.- Faxes: 948 63 15 21**

**LESAKA**

**ZENTRU**

**LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**

Nekane Ordoki Gonzalez

- ★ Ahozkapen zailtasuna ("erre" goizki esana, "cece"...)
  - ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
  - ★ Irakurketa arazoak
  - ★ Idazketa arazoak
  - ★ Toteltasuna "tartamudeo"
  - ★ Ahots arazoak
  - ★ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Enderez

☎ 646 894 332  
BERA

## ERREPIDEAK

# Azken hogei urteotako izokinik handiena hartu dute Bidasoan

Ornoz-Mugairiko Javier Baldak bederatzi kiloko alea atera zuen

## ttipi-ttapa

Ornoz-Mugairin sor-tu eta Iruñean bizi den Javier Balda Jauregi medikuak azken hogei urteotan Bidasoan har-rapatu den izokinik handiena atera zuen ekai-neko hondar astean. Ar-txabal inguruan, bed-eratzki kiloko pisua eta me-troko luzera zuen arrain bikaina atera zuen. Jo-se Mari Gaintza, arran-zale beratarrek hartu-tako oharren arabera, azken hogei urteotan arrantzatu den izokinik handiena da arrantzale baztandarrarena. Due-la hamarkada batzuk arrunta zen tamaina handiagoko izokinak arrantzatzea, baina az-ken urteetan, lau eta sei kilo artekoak izan ohi di-ra. Dena den, Gaintzak aipatu duenez, sasoi ho-netan normalean baino pisu handiagoko izoki-nak atera dira. Andres Urzelaieta irundarrak, erraterako, zazpi kilo eta 400 gramokoa atera zuen apirilaren 27an. Uztailaren 15ean



ARTXIBOKOA

**Zugarramurdi eta Sara, Elizondo eta Aldude eta Orbaitzeta eta Idopile arteko bideak moldatu eta**

akautu zen arrantza denboraldia eta berro-gei izokinetik goiti ha-

rapatu dira. Javier Bal-dak denboraldiko biga-grenna zuen: «Sasoi ba-

karrean bat baino gehia-go harrapatzen dudan lehendabiziko aldía da» zioen. Bederatzi kiloko alea, eulia amuzki gi-sara erabiliz atera zuen: «horrek jokaldiaz goza-tzeko aukera ematen di-zu». Izokin honek ez zuen mikrotxipik ezta hegatsa moztua ere, be-raz, ez da Ornoz.Mu-gairiko haztegian hazi-takoa. Sasoi honetan mikrotxipik gabeko izo-kin aunitz arrantzatu di-ra eta seinale ona dela diote adituek.

## AMOARRAIN ARRANTZA ESKASA

Amoarrain arrantzan, aldiz, hagitz ale gutti arrantzatu dira eta az-ken sasoietako txarre-na suertatzen ari da aur-tengoa. Arrantzaleak espe-zie honetako birpopulazioak eskatzen ari dira, izokinarekin egin den bezalaxe. Gaine-ra, egoerari irtenbidea eman arte, errekarren zenbait zatitan txanda-ka arrantza debekatzea eskatzen ari dira.

## LANA

## Ekainean 506 langabetu Doneztebeko INEMen

Ekain akabailan 506 lagunek emana zuten izena Donezte-beko INEMen, maia-tzean baino 23 guttiagok. Nafarroan, al-diz, zerbait goiti egin du langabeziak, aitzineko hilabetean baino 240 lagun gehiago bai-tzeuden lanik gabe, 16.720 guzira.

Langabetuen adi-nari dagokionez, es-kualdean 25 urtez be-heitiko 42 gizaseme eta 29 emakume eta 25 urtez goitiko 169 gi-zon eta 266 emakume zeuden langabezian maiatzean. Beraz, se-xu eta adin sektore gu-zietan somatu da lan-gabeziaren beheraka-da. Sektoreka, zerbi-tzu arloan zeuden lan-gabetu gehienak, 274. Industrian 152 langa-betu zeuden, eraikun-tzan 42 eta nekazari-tzan 3, aitzinetik lanik egin gabeko 35 lan-gabetuekin batera.

Maiatzean 315 kon-tratu berri egin ziren eskualdean, horietatik 41 ziren mugagabeak.

**Bizikleta Tailerra**  
errepide, mendi, trekking  
eta haurrendako bizikletak  
Arropa eta osagarriak  
**Salmenta eta konponketa**



**BERA**

## Besta egun ederra antolatu dute Alkaiagan Santiago egunerako

Guadalupe eta Txekiako dantzarien ikuskizuna uztailaren 23an



**PERTSONAIA**  
Jose Luis TELLETXEA

**1.800.000 euro banatu ditu eskualdean ONCEren kupoiarekin**

Ez bat eta ez bi, garai bateko pezetatan 300 milioi banatu zituen (1.800.000 euro) Jose Luis Telletxea ONCEko kupoi saltaileak ekainaren 27an. 40.695 zenbakia zuen kupoia erosi zuen bakoitzari kuipoiko borts milioi pezeta. «*Nahiko banatu izan zen, lesakar batek borts erosi zizkidan, baina gainerakoan bat, bi... Arkupeak elkartearen bazkarian ere banatu nintuen batzuk*» dio Jose Luisek. Ilusioz beterik dago geroztik, lehenbiziko aldia baita horrelako sari bat banatzen duela. Jose Luis bere andrearekin batera aritzen da lanean, berak bistan duen arazoak ez baitio bakarrik ibiltzen uzten. Jendearekin tratu handia dute, «*baina pazientzia behar da lan honetan*».

**Amaia eta Ainhoa**

Ekainean Altzateko bestak eta abuztuan Berako bestak. Tartean ere badira besta gehiago, Alkaiagako bestak. Uztailaren 25ean, ortzirailean, ospatuko dira aurtengoan, Santiago egunean eta ekitaldi desberdinak antolatu dituzte Bera eta Lesakako Udalen laguntzarekin. Goizeko 11:00etan Berako trikitilariaren kalejirarekin hasiko dituzte bestak eta segidan, 11:30etan, auzo meza izanen dute. 14:00etan ederki bazkaldu ondotik, jokoak eta hain arrakastatsua den dantza lehiaketa eginen dute Irats Taldeak lagunduta. Bertso Eskolako gazteek saioa arratsaldeko 19:00etan eskaini ondotik, 20:00etan Gure Txokoa Dantza Taldeko haurren erakustaldia ikusi ahal izanen da. Hortik aintzinerara, eguna ongi akautzeko, Irats Taldeak animazioa jarriko du dantzaldian.

**Igerilekuan**

Uztailaren 27an, gaztelu puzgarriak eta jokoak izanen dira Berako Igerilekuan goiz eta arratsaldean.



Azken urteotako moduan, Bidasoako Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiaren emanaldietako bat eginen da Beran uztailaren 23an. Euririk egiten ez badu, Altzateko Plazan izanen da ikuskizuna arratsaldeko 20:00etan, eta bertzenaz Eztegarako frontoian. Behobiako Eraiki Dantza Taldeak antolatuta, Gure Txokoa eta Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, atzerriko bi talde ariko dira Beran, Gure Txokoako dantza taldearekin batera: Karibeko Guadalupe uharterako talde bat (argazkian ageri dena) eta Txekiar Errepublikako bertze talde bat. Karibeko folklore taldearen gauzarik bereizgarriena erabiltzen dituzten "steel pans" altzairuzko danbor armonikoak dira. Artista gazteek jotzen dituzte erritmo eta estilo desberdinak interpretatuz.

**Bestetan Gure Txokoak eskaintzen duen dantza saioa 17 urte bitarteko gazteen esku egonen da aurtan**

Urtero, Berako bestetan Gure Txokoa Dantza Taldeak bere ikuskizuna eskaintzen du. Helduen emanaldia gero eta arrakastatsua izan da azken urteotan, baina aurtan, talde honek ez du ikuskizunik eginen. Lan kontuak direla eta, ezin izan dituzte entsaioak normaltasunez egin, eta horregatik, aurtengo bestetan ez du-

te saiorik jendaurrean aurkeztuko. Hala ere, beratarrak ez gara dantza ikuskizunik gabe geldituko, 17 urte bitarteko gazteen saioa berritu eta indartzeko asmoa baitago. Beraz, aurtengoan, abuztuaren 2an ordubete inguruko ekitaldi berexi eta ikusgarriaz gozatzeko aukera izanen dugu dantzari gazteek eskainita.

**SAROB**  
okindegia   
**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**Alzuri**  
Sukalde tresneria eta opariak  
Landare eta loreak  
Tfnoa: 948 630 370  
BERA 

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalafakzioa  
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

## LESAKA

# Aurtengoei adio eta guttiago falta da 2004ko Sanferminetarako!

Herriko kirolariek bota zuten azken urteetako txupinazo jendetsuena

## Aitor AROTZENA

Bertze urte batez joan zaizkigu Sanferminak giro ederrean. Zerbait azpimarratzekotan, txupinazoa aipatu beharko litzateke. Izan ere, beti udal agintarien esku izan da bestetako lehen suzuria botatzea, baina aurren herriko kirolariek izan dute ohore hori: Beti Gazteko futbol eta sokatira taldeak, Jone Fagoaga skeet olinpiko tiralaria, Rafa Maritxalar korrikalaria, Aintzane Goñi auto-gidaria, Joxe Jabier Taberna pilotaria, Joxelux Alzugarai futbol entrenatzailea, Mattin Irazoki futbolaria, Xabi Zozaia palista eta bertzeren bat izan ziren balakoian beste hasiera ofiziala ematen. Ofiziala diogu, izan ere, bi egun aitzinetik hasiak ziren aunitzentzat bestak, ortziral eta larunbat arratsean jendetza ikaragarria izan baitzen herrian. Hortik aitzin, Sanfermin eguneko dantzak, peñen eguneko koadrila arteko giroa eta azken bi egun lasaigoekin joan zaizkigu herriko bestak. Baina beti erratzen den bezala, guttiago falta da 2004. urteko bestetarako!



Peñen eguneko danborrada eta jautsiera. Hau giroa!

ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI



## PERTSONAIA

Belen MUTUBERRIA

### Bertizko Partzuergo Turistikoko gerente berria

Belen Mutuberría Bergara, 27 urteko le-sakarra da Bertizko Partzuergo Turistikoko gerente berria. Lan horretarako deitu zen lehiaketan, hamazazpi hautagaien artean, berak lortu zuen puntuaziorik altuena. Turismoan diplomatua, lehenik ere Bertizko Turismo bulegoan ere aritu da lanean, beraz ongi ezagutzen du inguru honetan arlo hori. Lehenbiziko egunetan, orain arteko aktibitate eta proiektuekin segitzeaz gain, lanbidea ezagutzen aritu da Belen. Uda ondotik, bere plangintzak aurkeztuko ditu Partzuergoan, horretarako gogoekin eta animoekin baitago. Izan ere, hauteskundeon ondotik aldaketak egin beharko dira Partzuergo Administrazio Kontseiluan. Lehen ere bertze lesakar bat, Nora Eñeterreaga, izana da Bertizko Partzuergo gerentea.

**IRU BIDE**  
ZINEZERA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**BEKO**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637826

*Deñe*  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**ANA**  
Janaridena  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETKEA**  
Zifuri  
JATETKEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA



## PERTSONAIA

Rabia MOHAMED BACHIR

### Saharatik Etxalarrera, bi hilabete pasatzera

Joan den uztailearen 8an etorri zen neska gazte hau Saharatik Etxalarrera eta bi hilabete pasatuko dituen hemen. Tellegiko Miguel Mari Irigoien eta Blanca Perezek aspalditik zuten gisa honetako ekimenen bat egiteko asmoa eta orain ilusioz beteak daude neska saharararen etorrerarekin. Erran digutenez ez zaio Etxalarko giro eta ohituretara egokitzea batere kostatu eta hagitx ongi pasatzen ari omen da hemen. Aurtun bi haur hartu dituzte Bortzirietan, bat Lesakan eta Etxalarraren bertzea. Blancak horrelako gauzak gehiago egin beharko lirakeela pentsatzen du: «*hagitx esperientzia polita da eta haur hau, bi hilabetez bada ere, Saharan baino hobeto bizitzeko aukera ematen diezu*».

## ETXALAR

# Bidasoako Nazioarteko gazteen VII. folklore jaialdia uztailearen 27an

Outlook Express mintegia egingen da uztailearen 28 eta 29an

### Joseba eta Nerea

Data hauetan urtero egiten den bezala, aurtengoan ere atzerrikotako dantzariak hurbilduko zaizkigu herrira. Irungo Eraiki dantza taldearen ekimenez, hurrengo igandean, uztaileak 27, Irlanda eta Hego Afrikatik etorritako dantzarien saioaz gozatzeko parada izanen da. Mezaren ondotik, herriko plazan, Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen VII. Folklore jaialdia egingen da eta horren barranean dantzari hauen emanaldia egingen da.



ARTXIBOKOA

Hego Afrikatik etorritako dantzariak izanen dira, Irlandakoekin batera, uztailearen 27ko folklore jaialdian.

### Dantzari ttikien afaria

Bigarren urtez segidan, Altxata kultur elkarteak herriko dantzari ttikieien afaria emanen die heldu den uztailearen 27an, urte osoan zehar egiten duten lana eskertzeko. Ilunabarreko 8etatik aitzin, frontoian bilduko dira 14 urte bitarteko dantzariak ongi merezitako afariaren bueltan.

### Puzgarriak Igerilekuan

Igande berean, uztailearen 27an, urtero bezala haurrentzako puzgarriak izanen dira udal igerilekuan. "Arte y cultura" programaren barranean badira bospasei urte haurrentzako joku hauek gure herrira etortzen direla eta aurtengoan ere goizeko 11etatik hasi eta eguerdiko ordu bata arte eta

arratsaldez hiruretatik sei arte egonen dira.

### Outlook Express mintegia

Kultur Etxeko puntu teknologikoak Outlook Express programa erabiltzeko mintegia antolatuko du heldu den uztailearen 28 eta 29rako. Outlook Express posta elektronikoa gestioatzeko gehien erabiltzen den programa da eta

hau erabiltzeko interesa duten guzietan zuzendua, heldu den astelehena eta asteartean arratsaldeko 4etatik 6etara izanen da mintegi hau. Bertzeak bertze, mezuak nola idatzi, irakurri, erantzun eta birbidali ikasteko aukera izanen da. Apuntatzeko aski da 948 635 386 telefonora deitzea, edo [kulturetxea@etxalar.org](mailto:kulturetxea@etxalar.org) helbidera mezua igorri.

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS  
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

Tel: 948 631 342 BERA - Tel: 948 637 172 LESACA

**ie** Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

HERRIKO

OSTATU - JATETxea

MANUEL TABERNA S.L. - BIDASOA (NAFARROA)

## IGANTZI

## Herria ezagutzuz

# Heldu den astean hasiko dira igeriketa ikastaroak

Iñaki Bereauk irabazi du Nafarroako Lasto-altxaketa Txapelketa

## Oskar TXOPERENA

Heldu den astelehen arratsaldean, hasiko dira aurtengo udako igeriketa ikastaroak. Aurtun berrikuntza pare bat izanen da aitzineko urteetako ikastaroekin alderatuz gero. Alde batetik, goizetan izan beharrean arratsaldean emanen dira –astelehen, asteazken eta ortziraletan– eta, bertzelde, irakaslea ere berria izanen da, Raul Iparragirre aranztarra ariko baita igerian erakusten. Guraso Elkarteak egin ditu koordinazio lanak eta dagoeneko hiru talde badira hasteko prest.

## Herriko Etxeko batzordeak

Uztailaren 4an, Udaltzatza berriaren bigarren bilkuran batzordeak zeinek osatuko dituzten eta kanpoko erakunde bakoitzean nor izanen den ordezkarerak zuten: Hirigintza, Herri-lanak eta Ingurumena: Jesus M<sup>a</sup> Begino eta Juan M<sup>a</sup> Arburua; Mendiak: Bi-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Uztailaren 9an jokatu zen Iruñean Nafarroako Lasto-altxaketa Txapelketa. Jakina denez, igantziarrak dira aspaldiko urte hauetan modalitate honetan Nafarroan aritzen diren ia bakarrak. Bada, egun horretan herri-kirol talde bereko lau lagun aritu ziren lehian eta honela gelditu ziren: Iñaki Bereau izan zen garaile 19 altxaldirekin (20.a egiteko zorian egon zen); bigarren postua Xabier Seinenzat izan zen, baita 19 altxaldirekin ere; hirugarrena, Carlos Sein 13 altxaldirekin eta ondotik Iban Txoperena 11rekin. Iñaki Bereau txapeldun berria ageri da Iban Txoperena eta Urtzi Loiarterekin batera artxiboko argazki batean.

dal Etxarte eta Andres Zelaieta; Kultura, Euskara eta Kirolak: Anuntxi Txoperena eta Blanca Matxikote; Herri-zerbitzuak: Jesus M<sup>a</sup> Sein, Juan M<sup>a</sup> Arburua, Jesus M<sup>a</sup> Begino eta Anuntxi Txoperena; Hazienda

eta aurrekontuak: Blanca Matxikote eta Jesus M<sup>a</sup> Sein.

Kanpoko erkundee-tan, berriz, hauek izanen dira ordezkariek: Cederna-Garalur eta Bertizen, Jesus M<sup>a</sup> Begino; Gizarte zerbitzu

eta Hiri-hondakinen mankomunitateetan, Jesus M<sup>a</sup> Sein; Euskara Mankomunitatean eta Osasun Kontseiluan, Blanka Matxikote.

## Xabier Telletxea bikain

Ekainaren 28an Igantzintz jokatuako Bizikleta Jautsiera proban iaz baino zorte hobea izan zuen Xabier Telletxea herriarrak proba irabaztea lortu baitzuen, nagusitasun handiarekin gainera. Eguraldi bikainarekin jokatu zen proba eta giro ederra izan herrian egun guzian. Ez gara, halere, berri honekin sobera luzatuko kirol sailan dagoen informazioa ez errepikatzeagatik. Zorionak, Xabier!

## Mezak San Juan Xarren

Ohitura denez, San Juan egunetik hasita, igandeetako meza nagusiak San Juan Xarren izanen dira 12:00etan uztailaren 27ra arte.

## Jose Maria Usandizaga

2002ko ekainaren 4ko alean aipatu genuen Usandizagaren oroi-menezko plaka lekuz aldatua zutela Erramunean. Musikari donostiar haundi honen igantziko egonaldia laburbiltzen saiatuko gara oraingo honetan.

1914ko bestetan ailegatu zen Igantzira, biriketako gaixotasun larri batek jota. Gaztea izanik ere, Igantzira etorri zenerako hagitz ospe handia zuen lortua, Mendi-mendiyan eta Las Golondrinas operekin batez ere. Ordurako kronikek erraten dutenez bidera aterra zitzaizkion herritarrrak harrera egitera: «*varios disparos de cohetes anunciaron la llegada de Usandizaga. (...) las autoridades, precedidas de la banda, se dirigieron a la entrada del pueblo*». Jakina denez, Erramunean hartu zuen ostatu eta ailegatu bezain abudo hasi zen La Llama, bere azken opera, konposatzen. Hagitz argal eta ahula zegoen ordurako eta egunak ematen omen zituen ohatzean sukarrak jota. Halere, ahal zuen guzietan lanari ekin eta herri guzian barrena entzunarazten zuen pianoa. Handik guttira, hagitz gazterik hil zen Donostian Usandizaga.



## ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

## Alberto RETEGI

abokatua

Alzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763



## BORTZIRI UNSION ANAIK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891

Faxa: 948 637 511

## ARANTZA

# Sasoi honetan herria ez dago hutsik eta geldirik

Hamazazpi gaztetxo udaleku irekietan parte hartzen ari dira

### Nerea ALTZURI

Udako oporrak dira zenbaitzurenzat. Urteko errutinatik ateratzeko ez da ordea herritik kanpora joan beharrik. Kanpoan egun batzuk pasatzeko hautua egiten duenari bejondaioia, noski, baina bertan, herriko gazteenak adibidez, uda bat etorri eta bertzea joan, eguna osotua izaten dute. Aurtentzen, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eskaini "udaleku irekiak" programan parte hartzen ari dira 17 gaztetxo. Elixabet Iturria eta Aitziber Almandoz aranztarrak begirale izanta, hainbat aktibitate egiten dituzte. Astearte honetan izan dute lehen eguna. Astearte eta ortzegunero, arratsaldeko hiruetatik sei-etara, ongi pasatzeko aukera ederra dute.

Bertzalde, lau haurrek eman dute izena igeriketa ikastaroan. Raul Iparragirre aranztarrak igeriketa ikastaldia emanen du Igantzi-



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

Udarakin batera parkeak bisitari gehiago biltzen ditu. Izan ere, Arantzako herriko sarreran Parkea eta Informazio gunea sortu berri da. Hau da aitzineko udalaren esku egin den azken lana. Hala ere Informazio etxolan herriko ibilbideen panelak jartzea falta da, hau eta ibilbide tematikoen markaketak bigarren fase batean egiten dira, seguru aski irailean.

ko igerilekuan asteen hiru arratsalde, bi herrietako haurrentzat.

### Mediterraneoan

Itsas-bidaia egin dutenak berriz errepikatze gogoarekin etorri dira. Guztira 19 lagun egin dute itxasoko ibilaldia, horietatik 13 he-

rritarrek. Ekainaren 29an Irundik Bartzelonara tren hartu, eta handik Cagliari, Tunisia, Malta, Napoles, Erroma, Niza eta Bartzelona izan dute ibilaldiko puntu nagusiak. Bisitaldiak ere tartekatutako bidaietan, eta beraz, leku aunitz ikusita etorri zi-

ren San Fermin egunean. Badira urteak bidaiak antolatzen direla herritik. Probextu gabe ezin utzi den aukera!

### AEK barnetegia

Bada urte mordoxxa euskara ikastaldiak ematen dituela AEK-k Arantzako albergean,

## Bidasoa erreken III. Eguna irailaren 13an

Aizkolegi taldeak bultzatuta, Baztan eta Bidasoa erreken bazterrak garbitzeko, eta gero, bildutako materialak bereizi eta birziklatzeko aprobetxatzen dute egun hori. Eta hori iragarriko duen kartela hautatzeko, marrazki lehiketa antolatzen da eskualdeko haur eta lehen hezkuntzako ikasleentzat. Aurtengo berrikuntza da jendeak botoa emateko aukera izan den duela. Horretarako, uztailearen 15etik abuztuaren 17ra Bertizko Natur Parkean dago marrazkien erakusketa, goiz-arratsaldean.

Aterpen. uztaileko lehenbiziko hamabortzaldian 30 lagun egon dira, euskara hitzez eta idatziz praktikatzeko. Orain, astelehen honetatik 35 lagun daude, eta heldu den hilabetean, abuztuko bi hamabortzalditan, bertze bi barnetegia izanen dira.

**ALBERGIA  
JATETXEA**  
© 948 634179  
ARANTZA

**zapatadenda.  
kalotxa.  
osagarriak.  
konponketak.**

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA  
**ALFONBRAK** SALMENTA  
**PERTSIANAK** MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

## ADINEKOAK

# Arkupeak elkarteak omenaldia egin die Urrezko Ezteiak eta 85 urte betetakoei

Kasik mila lagun bildu ziren Donezteben egindako bazkarian

## ttipi-ttapa

Arkupeak elkarteak aurtan 85 urte eta Urrezko Ezteiak bete dituzten bazkideei omenaldia egin die, ekainaren 27an Donezteben egindako bestan. Aurtan, 50 urte esposaturik bete dituzten senar-emazteak hamalau izan dira eta hogeita hamar lagunek bete dituzte 85 urte. Guzira 917 bazkide bildu ziren Doneztebeko udal kiroldegian egindako bazkarian. Aitzinetik, aurtan hil diren bazkideen omenez Meza Nagusia izan zen. Bertan, Bittor Elizagoien eta Txomin Garmendiaren bertsoak aditu ahal izan ziren. Felipe Ganboa, Arkupeak elkarteak lehendakariak elkarteak argitaratutako aldizkaria aurkeztu zuen. Bertan, omenduen bizitza-

ren berri eman eta hainbat kontu ageri dira.

## NAFARROAKO PIRINIORA BIDAIA IRAILEAN

Irailaren 7tik 11ra Nafarroako Piriniora bidaiatu egingen du Arkupeak elkarteak. Egonaldia Xabier hotelean egingen dute, baina bisitak egingen dituzte Errora, Eugiko urtegiara, Kintoara, Aurizberrira, Burgetera, Orreagara, Erronkarira, Izabara, Otsagira, Iratira, Ilunberrira, Orbaitzetako arma-olara... Autobusa irailaren 7an, 16:00etan abiatuko da Irunitik eta errepide nagusia igarotzen den eskualdeko herri guzietan bilduko ditu elkarteak bazkideak. Hondaregunean, goizez inguruko herri edo bodegaren bat bisitatu, bazkaldu eta bueltatuko dira.

# Urrezko Ezteiak

## SUNBILLA

Victoria Ibarra – Silvestre Juankorena  
Fermin Ibarra Agesta – Esperanza Anzizar Iriarte

## TXILE

Eusebio Iltzauspe (Erratzu) – Purificacion Zugarramurdi (Arizkun)

## GOIZUETA

Ceferino Etxegia Berroeta – Mertxe Perurena Apezetxea

## LEITZA

Antonio Barriola Zabaleta – Carmen Saralegi Zabaleta

## ARANTZA

Gregorio Ordoki – Carmen Larretxea

## ZUBIETA

Francisco Escudero – Pilar Telletxea

## DONOSTIA

Francisco Pascual – Rufina Altzuri (Sunbilla)  
Francisco Sorrarain – Angeles Ganboa (Sunbilla)

## URROTZ

Lucio Juanena Telletxea – Visitacion Arozena Iribarren

## IRUÑA

Angel Martin (Doneztebe) – Carmen Durruti (Erratzu)

## IRUN

Tiburcio Sanz del Hoyo – Rosario Gil Jimenez  
Jose Maria Saez – Josefa Duque

## BERA

Matias Irazoki Berasain – Josette Suso Dussin

# 85 urte

Sofia Iturria Galarza ELIZONDO  
M<sup>a</sup> Teresa Izeta Elizalde ELIZONDO  
Jose L Pikabea Irazoki ETXALAR  
Jose M Sansiñena Irisarri ETXALAR  
Soto Anibarro Jose IRUN  
Juliana Azpiroz Aleman LEKAROZ  
Norberto Elizondo Bertiz BERA  
Ana Rebollo Suarez BERA  
Maria Irazoki Nesprias BERA  
Emilia Errandonea Endara BERA  
Manolo Sanz Martinez BERA  
Juana Petrirena Ordoki ALKAIAGA  
Fca. Pikabea Arozarena ARIZKUN

Aniceto Etxeberria Telletxea IGANTZI  
Jose Ariztegi Telletxea DONEZTEBE  
Mercedes Sarratea Mutuberria DONEZTEBE  
Juan Arretxea Zunda SUNBILLA  
Petra Sagastibelza Telletxea LEITZA  
Bernabe Azpiroz Irazusta LEITZA  
Antonia Rodriguez Elizegi LEITZA  
Ambrosia Oronoz Zabaleta LEITZA  
J. Ramon Villabona Zestau LEITZA  
Jose Zabaleta Martiarena LEITZA  
Andres Oskariz BAGORDI  
Pedro Sagardia Elneta DONAMARIA  
Maria Mikelarena Baleztena SALDIAS  
Maria Arregi Goñi ORONOZ  
Eustaquio Santesteban Mutuberria ZUBIETA  
Jesus Ibarra Bertiz SUNBILLA  
Fco Telletxea Baztarrika ERATSUN

## OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako  
aholkularitza-zerbitzua  
hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA



## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## DONEZTEBE

# Giro eta umore ederrean joan dira aurtengo San Pedro bestak

Eduardo Almandoz gazteak banderaren dantza egin zuen lehen aldiz

### ttiipi-ttapa

Eguraldi bikainak la-gunduta, giro ederrean joan dira aurtengo San Pedro bestak. Ez da berrikuntza handiegirik izan egitarauan, hori bai, Ramon Etxebeste alkate berriak bota zuen txupinazoa. «Bestak aitzineko korporazioak pres-tatu ditu, baina denok gozatu ditugu» zioen.

San Pedro egunean, banderaren dantzan txanda hartu zuen Eduardo Almandozek, 18 urtez Juan Luis Odriozolak bete baitu lan hori. Trapatan dantzari dagokionez, Ramon Etxebestek ezin izan uzen dantzatu, aurtent aginte makilarekin egotea egokitu baitzaio. Dena den, dantza taldekideek omenaldia eskaini nahi izan zioten eta Ruth alabak, Carnen arrebak eta Saioa Meokilobak, Lekeitioko aurrekua dantzatu zuten bere ohorez.

Haurren Egunean, haurren korporazioak hartu zuen agintea: Ma-



ARGAZKIA: LEGARRA

**Eduardo Almandoz gazteak, Juan Luis Odriozolaren lekukoa hartu du aurtent, San Pedro eguneko banderaren dantzan. Odriozolak 18 urte eman ditu eginbehar hau betetzen.**

ria Estanga izan zen alkate, Aitor Zugarramurdi bake-epaile, Mikel Grazenea banderadu-

na, eta Oihana San Miguel, Marta Otermin, Asier Otxandorena, Jose txo Ezkurra, Mattin

Jauntsaras, Oihana Mitxelena eta Aitziber Santesteban zinegotzi. Goizez, haurren txupinazoa

bota zuten. Gero meza aditzera joan ziren, txistulari, txaranga eta erraldoi eta buruhandien laguntzarekin. Azkenik, Santamarian bazkaldu zuten.

Arratsaldean, herriko erremontelarien arteko pilota jaialdia izan zen. Lehenbiziko partidand, Uterga eta Urrutia saldiastarrak irabazi egin zieten Iribarren eta Olazarri. Partida nagusian, aurrelari gisara aritu zen Lizaso eta Etxeberria IIIak irabazi egin zieten Ezkurra eta Erkiizari. Ez zen bestetako kirol berri pozgarri bakarra izan. Luismi Apezetxea eta Patxiku Ganboak IX. paleta goma txapelketa irabazi zuten, Susperregi-Dagerre bikote handiari irabazita. Bertze aldetik, aizkora apostuan, Belarra eta Telletxea herriko aizkolariek bikote egin zuten Mindegia eta Larretxea handiekin. Azkenean, garaipena Belarra-Mindegiantzat izan zen.

**BELARRA**  
OSTATUA  
JATETXEA  
Amezia karrika  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

**ARTEKARI**  
TALDEA  
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**  
• Asteleheneetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 15etatik 19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**  
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713  
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

Larunbat arratsaldeak itxia

**Txirrista**  
haurrendako jantxidenda

**MERKEALDIAK**  
DENA PREZIO ERDIAN

Elizagibela 2 • DONEZTEBE  
Tel.: 948 450881

## GOIZUETA

# Komunalaren jabetza berriz ere eztabaida gai

Nafarroako Gobernuak iralekuetako landaketen subentzioak moztu ditu


## Esteban AROTZENA

Herriko bazkideen eskaerari erantzunez, *Foresnako* bi teknikok komunalari buruz Nafarroako legediak eta gure inguruko hainbat herritako komeniok (Araño, Donamaria...) diotena azaldu zieten ekainaren 25ean Herriko Etxean bildutakoek.

Azken urteotan askotan egon da mahai gainean komunalaren jabetzaren inguruko arazoa. Orain dela ia 40 urte Nafarroako Diputazioak ontzat jotako

akordio bat ere sinatu zuten Udalak eta herritar batzuk. Komenio horretan lurraren %20a herritari entregatzen zitzaion, eta %80a behin betirako propioa bihurtzen zen. Gaur egun gauzak erabat ezberdinak dira, %67tik %75era bitarteko portzentaiak eman bai dituzte "jabeek" azken urte hauetan egindako komenioetan. Akordioa sinatutakoan komunaletako plantazioentzat eman litezkeen tratamendu ezberdinak ere aipatu zituzten *Foresnakoek*.

Gai hauxe –landaketen– izan da hain zuten komunalaren gaia mahai-gainean paratu duena. Iralekutako plantazioei dirulaguntza ukatu die Nafarroako Gobernuak aurrean, "jabe" askok komenio bat egitearen beharra ikusi dute eta horrelaxe eskatu diote udalari. Hurrengo pausua zein izanen den ez zen garbi gelditu aipatutako bileran, baina bildutakoek iritzia udalarekin komenioa sinatzearen aldekoa zela ziotuz.



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Zapela asko ditu irabaziak dagoeneko Jon Apeztegia pilotariak, ekainaren 29an Tafallan esate baterako. Baina uztailaren 6koa ez da bat gehiago izan, hau Elgetako lau terdiko zapela izan da. Afizionatuen artean estimatuena. Euskal Herriko kadeterik hoberenek izan ditu aurkari 15 urteko goizuetarrak, gehienak bera baino urtebete zahragoak, eta inork ez dizkio 14 tanto baino gehiago egin. Finala ere airean irabazi zion Iraola almandotarrari, 22 eta 12. 10-1 aurretik jarri zen eta baztandarra hiru tantura hurbildu bazen ere (12-9 eta 13-10), 19-10ekoarekin partidua bere alde jarri zuen.

## ARESO

# Olazarko zubia eta inguruak garbitzen ari dira penintsulako hogeita bost gazte

Ondotik, Europa osoko gazteak ere etorriko dira

## Juana Mari SAIZAR

Dagoeneko ahaztuak ditugu San Juan eta San Pedro jaiak. Begiak jarrita daude herriko festen antolakuntzan, azken ukituak ematen ari baitira. Uda eta jaiak uztartuta daudela ematen du, baina beste udara mota batzuk ere ikusten ari gara. Hogeita bost gazte, hiru moni-

torerekin batera lan-kanpusera etorri zaizkigu, herriko txokoak garbitzera: Olazarko zubia eta bere inguruak. Hamabost egunetan ariko dira lanean eta penintsula guzitik etorritako jendea da. Hurrengo hamabost egunetan Europako herrialdeetatik etortzekoak omen dira beste hainbeste.

## Maitane Gereño Espainiako igeriketa txapelketan

Maitane Gereño herriko igerilariak, Espainiako igeriketa txapelketan parte hartu du Valentzian, uztailaren 10etik 13ra. Gipuzkoako txapelketan gutxieneko denbora lortu zuen ehun metro estiloetan.



ARTXIBOKOA

Maitane Gereñok Espainiako igeriketa txapelketan hartu du parte.



## ELGORRIAGA

### Santiagoak uztailaren 24tik 27ra

Egun nagusian ezkondu eta ezkongabeen arteko desafioa

Ortzeguna  
Uztailak 24

**20:00etan** suziria eta zopak, txaranga eta txistulariekin. **00:00etatik aitzin** dantzaldia GAUBELA taldearekin. Bes-tetan Beti-Alai txaranga eta Doneztebeko txistulariek joko dute.

Ortzirala  
Uztailak 25

**10:00etan** argi soinuak. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** ezkondu eta ezkondu gabekoen arteko desafioa eta aperi-tiboia. **18:00etan** Lesaka, Donamaria eta Elgorriko trikitixa taldeen aktuazioa. **19:00etan** partxis txapelketa. **Arratsalde**z eta gauez dan-

taldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Larunbata  
Uztailak 26

**10:00etan** argi soinuak. **12:00etan** toka txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea, JOXE ANGEL akordeolariak alaitua. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea  
Uztailak 27

**10:00etan** argi soinuak. **11:00etan** haur jokoak, zezen mekanikoa, koltxonetak... **12:30etan** pilota partiduak eta ha-maiketakoa. **16:30etan** mus txapelketa. **21:00etan** tortilla txapelketa eta berendua. Agerralde akordeolariaren emanaldia.



ARGAZKIAK: ARTXIBOKOAK

Goitian, joan den urteko bestetan pailazoen Haurren Egunean eskaini zuten emanaldia. Beheko argazkian, akordeolariak 1994. urteko Santioetan.

616 513 491  
**Pititi**  
ESKABAZIOAK  
C/Amalia  
30100 DONEZTEBE (NAFARRA)

**ETXEBERRIA**  
**ZURGINDEGIA**

*Ongi pasa bestetan!*

© 948 45 03 10 • ELGORRIAGA

*Burdinlan artistikoa*  
**MARTIN - IBARRA**  
Tfnoa: 948 450235 • ELGORRIAGA

**HILARION ZIBER OSTATUA**

- ✓ Internet
- ✓ Posta elektronikoa
- ✓ Skanerra
- ✓ Inprimagailua...
- Kafetegia
- Bokatak
- Platerak
- Pintxoak...

**tipi**  
**ttapa**

*Arano, Elgorriaga, Elizondo eta Iturenngo  
besta zoriontsuak opa dizkizuegu*

## ITUREN



Duela urte batzuetako bestetan sari banaketa: Sari banatzaileak nahiz saridunak, gustora!

## Herriko bestak uztailaren 18tik 22ra

### Ostirala 18

**21:00etan** Txupinazoa. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **00:30etatik 4:00ak arte** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

### Larunbata 19

**10:00etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin.

**12:00etan** Futbito partidua, herriko helduak gazteen aurka.

**18:00etan** Trikitixa emanaldia, Josune eta Amaia Irastorza eta Mingedia senideak, beraien

ikasleekin eta Lesako Trikitixa Eskola.

**20:00etatik 22:00ak arte eta 00:30tik 4:00ak arte** dantzaldiak GAUBELA taldearekin.

### Igandea 20

**10:00etan** Kalejira trikitilari eta txistulariekin.

**11:00etan** Meza Nagusia.

**12:00etan** pilota partiduak, Txarutako pilotari gazteekin.

**18:00etan:** HERRI KIROLAK:

Aizkolariak: OLASAGASTI-Dani BIZENTE.

SARALEGI ANIAK elkarren kontra. Proba konbinatuak. Harrijasotzailea: Migeltxo SARALEGI.

Dantzaldiak AGE-RRALDErekin, eguneroko orduetan.

### Astelehena 21 Haurren Eguna

**10:00etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin.

**11:00etan** jende helduentzako Plater Tiraketa.

**11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik**

**19:00ak arte** Haur Jokua: tren ibiltaria, karts, txirrista, piloten etxea. Arratsaldean, Txokolate jatea izango dute, herriko plazan.

**17:00etan** Mus txapelketa.

Dantzaldiak MIKEL SALABERRIrekin, eguneroko orduetan.

### Asteartea 22

**10:00etan** Kalejira trikitilari eta txistulariekin.

**14:30etan** urtero bezala Herri bazkaria. Ondoren, kalejira.

Arratsaldez eta Gaez dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin. Gero, «Pobre de mi» eta bes-



**INDEGIA**  
ZURGINDEGIA



Teilatuko zurak  
Etxe zaharren moldaketa  
Etxe berriak  
Eskailerak  
Sukalde-mobleak  
☎ 948 451906 • 676 847281  
**AURTIZ**

## Herriko Ostatua

### ITUREN

Herriko Plazan  
948 45 14 30

Bazkariak, gosariak,  
etxean hazitako estrukak, zopak...

Ongi pasa bestak!

## ERREPIDEAK



# Zozaiia-Donetztebe errepide berria ireki zuten uztailaren 1ean

Kilometro bakoitza egitea 2,85 milioi euro gosta da

### ttipi-ttapa

Uztailaren 1ean ireki zuten N-121-errepidean, Zozaiia eta Donetztebe lotzen dituen errepide zati berria. 9,5 kilometroko errepide berriak ukitzen dituen herri eta kontzejuetako alkate eta zinegotziekin batera, Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilaria izan zen ekitaldian.

Teknikoki hiru zatitan banatu zen proiektua, baina trazatu guzian lan bakartzat hartu da. 31 milioi euroko inbertsioa egin da, lehengo 5.200 milioi pezeta baino gehiago. Lan honekin, ibilgailuek ez dute Oronozko bidegurutzera edo Narbarte eta Oieregiko karrikak igaro beharko. Orain arte, egunero 5.400 ibilgailu pasatzen ziren puntu hauetatik,

horietatik %18 kamioiak eta ibilgailu astunak.

Errepide berriaren lehenbiziko zatia Zozaiian abiatzen da, harrobi zaharren inguruan eta 1.600 metroko luzera dauka. Zati hau mariez kurrena eraikuntza enpresak egin du 6.339.838 euroko aurrekontuarekin. Bideak zortzi aldiz gurutzatzen du Marin erreka. Bigarren zatian Mugairiko lotura eta aterabidea eta Mugairi-Oieregi tunela egin dira, 7.182.094 euroko aurrekontuarekin.

500 metro eskaseko luzera duen tunela igaro ondotik hasten da hirugarren zatia, Oieregi-

ko lurretan. Ehun metroko zubiarekin pasatzen da Bidasoa eta orain arteko errepidea gainera gurutzatzen du. Legasako lotura osoa egin da leku horretan eta Donetzteben lotura erdia egin da, Irun-Donetztebe eta Donetztebe-Irun mugimenduk egiteko. Beraz, Donetztebetik Iruñera ateratzeko edo Iruñetik Donetztebera sartzeko, Legasako lotura erabili beharko da. Hirugarren zati honen aurrekontua 17.454.801 eurokoa izan da. Bigarren nahiz hirugarren zatiak Azpiz y Saralegi eraikuntza enpresak egin ditu.

## BERTIZARANA

# Lapurdikoko Milafranga eta Arabako Lapuebla de Labarcarekin senidetu da herria

### ttipi-ttapa

Bertizaranako Udala eta Lapurdiko Milafranga eta Arabako Lapuebla de Labarcakoa hiru herrien senidetzea bultzatzeko lanean ari dira, Udalbiltzaren Hurbiltzen programaren barnean. Hiru herrietako alkate eta zinegotziak ekainaren 28an bildu ziren NARBARTEN. Bilera honen xedea, gizarte eta instituzio harremanak landuko dituen proiektua gauzatzeko ekimen ezberdinak aztertu eta antolatzeko zen. Andres Etxenike, Bernard Larra mendia eta Francisco Txabarri alkateek gidatu zuten elkarlan arlo ezberdinak aztertu zituen lehen harreman hau. Beraiekin batera, Milafrangako Domini-

que Durquet eta Georges Labeguerie, Lapueblako Juan Muro, Maria Carmen Nájera eta Kontxi Gallurralde eta Bertizaranako Blas Andresena eta Antonio Hernandorena izan ziren bileran.

Lehenik, turismoa, euskal pilota, monumentu ondarea eta gaztedia arloetan eginen dute elkarlana. Urrian, ikasturte hasieran, hiru herrietako 8 eta 11 urte arteko haurrak bilduko dira Bertizaranan, natur aktibitateak egiteko eta euskara ezagutzak honetzeko. Udazkenean, erretiratuak Lapueblara joan dira, mahats bilketa ikustera. Hiru herrietan trinketea dutenez, pilota txapelketa ere antolatuko da.



**Iturengo Udalak**

**Besta zoriontsuak opa dizkizue**

**Iturendar eta bisitari guztioi**

**AETXINEA ERRETEGIA**



**ITUREN**

*Besta onak pasata!*

Telefonoa: 948 450 410




## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

## ARANO



## Santiago jaiak uztailaren 24tik 28ra ospatuko dira

Egun nagusian bertso saio bikaina izanen da

### Osteguna 24

**20:00etan** Udaletxeko balkoitik, Alkate Jaunak festei hasiera emango dien suziria botako du. **21:00etan** Herri meza. **22:30etan** Mus txapelketa San Roke elkartearen.

### Ostirala 25

#### Santiago eguna

**10:00etan** Goizsoinua trikitilariekin. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:30-etan** Pelota partidua Arano eta Goizuetako afizionatuen artean. **18:00etan** Harrijasotzailea SARALEG. Enek eta Ruben Saralegi (10 eta 12 urte) aizkolari gazteen ikuskizuna. MINDEGIA eta ARROSPIDE aizkolariek eta Iparaldeko jokoak.

**19:30etan** Bertsolariak; Angel M. Peñagarikano, Estitxu Eizagirre, Xabier Xilbeira eta Maialen Lujanbio, gajjartzailea Xa-

bier Legarreta. **Afandu** aurretik eta ondotik Epelde eta Larrañaga.

### Larunbata 26

#### Jubilatuen eguna

**10:00etan** Goiz soinua **11:00etan** Herri meza. Meza ondotik hamaiketako jubilatuentzat San Roke elkartearen **12:30-etan** Afizionatuen pilota partidua. **14:00etan** Jubilatuen bazkaria Gure Ametsa ostatuan, on-

dotik bertsolariak Imanol Lazkano eta José Agirre. Arratsaldean trikitixa. **17:00etan** Pilota txapelketaren finalak. **22:00etan** Oilasko jatea ondoren gaupasa ETXEBE anaiekin. Goizaldean alkoholemia proba eta baratxuri zopa aukeran.

### Igandea 27

#### Umeen eguna

**10:00etan** Meza Nagusia, ondotik goiz soinua.

**12:00etan** Pelota partidua Arano eta Goizuetako kadeteen artean.

**18:00etan** Gorritiren show-a. **Ondotik** txokolatada. **20:00etan** Euskal artzai-zakurren erakuskaldia: Mikel Aizpurua "Beti" rekin, J. Antonio Arribillaga "Mendi" rekin, Inaxio Etxeberria "Argi" rekin, eta Mikel Garaia "linda" rekin. **22:00etan** Potxin eta Patxin pailazoak.

## Oihan enkantea %10a merketuz

### Kontxi KLABER

Aranoko Udalak Iturro, Txurdaingikoborda eta Ipiko oihan lotea enkantera atera du berriz ere, hasierako prezioan %10a merketuz. Iturron, 771,54 m<sup>3</sup> emanen duten 1.055 insignis pinu eta 29,97 m<sup>3</sup> emanen duten 50 laritz edo aleritze japoniar arraso moztuko dituzte. 64,05 m<sup>3</sup> emanen duten 55 haritz amerikano ere bakanduko dituzte. Txurdaingikoborda inguruan, 467,50 m<sup>3</sup> emanen dituzten 12.400 insignis pinu arraso moztuko dituzte eta Ipiñabar-Egibeltza inguruan, 7.740 insignis pinu arraso moztuko dira, 6-925,94 m<sup>3</sup>ko bolumenarekin. Hasierako prezioa, %10eko jetsiera barne duela, 289.648,87 eurokoa da. Proposamenak, uztailaren 24ko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Proposamenak uztailaren 31n, 17:00etan irekiko dira.

## GURE AMETSA jatetxea

Fai zoniotsuak opa dizkizuegu  
© 948 514000 • ARANO

## gaztelu scl iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

## Benta Berri jatetxea

Larunbatetan eta astelehen arratsaldetan itxita  
Sukaldaritza tradizionala

© 948 514018 • Urumea • ARANO

GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

LEITZA

## Urteroko bisitariak herrian jada

Euskara ikasleak eta Saharako gazteak hemen dira

Mikel ILLARREGI

Batzuek, besteak baino urte gehiago, hala ere, horrela jarraituz gero biak aspaldiko bisitariak moduan, idatziko da herriko historian. Lehen "aekazoak" deitzen zirenak eta orain "ikakoak" direnak, alde batetik eta "saharauia-rrak" bestetik.

Lehenengo taldekoak, hamabost bat lagun dira eta hiru napar eta gipuzkoar pare batez gain, beste gehienak gasteiztarrak dira. Hauek bi astetako etorri dira eta eskoletan, egunero ematen dituzten ikas-lan ordu horiez gain, herrian barna edota inguruan, beste iharduerak burutzen dituzte. Benetan meritua badute, uda garaian, askok berauen oporrak aprobetxatuz, ezezagun den herri batera joan eta euskara ikastera edo praktikatzera eta hobetzerantz etortzea. Gure herria euskalduna izanik, horretarako egokitzat hartzen dute antolatzailak eta horregatik beragatik guri, herritarroi, harrera ona eta atsegina eskaintzea dagokigu. Lerro hauetatik, nahiz eta orain ikastaroaren amaiera izan, oparoa eta aprobetxagarria izatea eta herriaz etajendeaz oroimen ona

hartu izan nahiko genuke.

Bigarren taldea, bigaia luzeagoa eginez, honuntza udako bi hilabete hauek igarotzeko asmoz, azkeneko bost bat urtetan sahararren kanpamenduetatik etortzen direnak dira. Uztailaren 8an iritsi dira herriera, zortzi-hamar urte bitarteko hamar bat gazte. Inguruko zonalde honetan, aurtengo toki gehiagotara ailegatu dira Saharatik etorritakoak; Malerreka, Baztan, ... Gutxi gora behera hamalau bat saharar.

Hona iritsi orduko osasun azterketa egiten diete. Ondoren, informazio hau eskaini digun Heleni Zabaletak dioenez, batzuk berriak direnez, «*egokitu egin behar dute, batzuk ur-itturri bat zer den ere ez baitute ezagutzen*». Era berean, «*hartzailea den familiak ere, tratua eta harreramana sortarazten saiatu eta behar du*».

"Oporrak bakean" deitzen da aurtengo kanpaina eta Heleni gehitzen duenez «*10.000 gazte inguru atera dira beraien lurraldetatik*». Helburua, han bizi behar izaten dituzten baldintza fisikoak; beroa (55°), elikadura eskasa... bi hilabetez bederen, beste



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Ikastaroko lehen eguna, zenbaitentzat «ateka» pasatzeko egun zaila.

modu batean eraman ahal izatea.

### Igerilekuak, ongi?

Herritarrez gain, aurreko zatitxoan aipatutako guztiek ederki eta gustora erabiliko dituzte igerilekuak. Hala ere, esan beharra da kexa dexente zabaldu dela igerilekuen funtzionamenduz. Hau horrela, eskolako guraso elkar-teak, igerilekua kudea-

tzen duen enpresari eta udalari berari, karta bana igorri die beraiek antzemandako hutsuneak eta gehiegikeriak aipatu. Uda luzea da oraindik eta modu egokian erantzungo dutelaren esperantzaz aipatzen dugu berritxar hau.

Honetaz gain, uztailaren 14ean hasita eta abuztuaren 8an amaituta igeriketa ikastaroa izanen dela esan behar dugu. Bi maila izanen

dira. Bata ikasketa bera, goizeko 11:30etatik 1:15ak arte. Beste "Hobetzeko ikastaroa", goizeko 12:20etan hasi eta 13:05etan bukatuko dena. Ikastaroaren prezioa 19,03 eurokoa da.

### Liburutegia

Uda garaian liburutegiaren ordutegia aldatzen da. beraz honako hau duzue hemenik aurrerantzean; Goizetik 8:30etatik 14:30etara.



Bidali

## ttipi-ttapa

herritik kanpo bizi diren

lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa

☎ (+34) 948 631188

## BAZTAN

# Baztanen Bai Euskarari akordioa sinatu zen ekainaren 26an

Baztango 93 gizarte eragilek euskararen alde agertu dira

## ttipi-ttapa

Duela zenbait hilabete Bai Euskarari akordioa martxan jarri zen Baztanen, euskararen normalizazioari dago-kionez pauso inportanteak emateko helburuz. Baztango Bai Euskarari Akordioan parte hartzeko nahia erakutsi zuten gizarte eragileek Akordio hori sinatu zuten ekainaren 26an Arizkunenea kultur etxean egin zen ekitaldian.

Baztango 93 gizarte eragilek, haien alorrean, euskararen aldeko pausoak emateko borondatea azaldu dute. Gizarte eragile hauek sektore ezberdinetakoak dira: kirol mundukoak, zerbitzu orokorretakoak, mundu asistentzialekoak, lan mundukoak, komertzioak, elkargo profesionaletakoak, ostalaritza mundukoak eta zenbait guraso elkartekoak ere.

Baztango Udaleko Iñigo Iturralde zinegotziaren ustez, «pozgarria da Baztanen hain-



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

**Bai Euskarari akordioaren sinadura ekitaldian, Baztango hainbat gizarte eragilek hartu zuen parte.**

*bertze gizarte eragile euskararen alde konpromisoak hartzeko prest daudela ikustea».* Hark aipatu zuenez, «hemendik aitzinet diagnostikoa egin, helburuak zehaztu eta ondoren bakoitzak nahi dituen edo ahal dituen konpromisoak hartuko ditu euskararen presentzia nor-

*banakoaren alorrean handiagoa izan dadin».*

Xabier Mendiguren, Kontseiluaren Idazkari Nagusiak azpimarratu zuenez, «euskararen normalizazio prozesuan denon partehartzea beharrezkoa da. Zentzu horretan gizartearen arlo guztiek bat egin behar dute gure hizkun-

tzak bete behar duen espazioa betetzeko». Xabier Mendigurenek erran zuenez, une honetan 17 esperientzia 93 herritan eta 2754 gizarte eragile lanean ari dira euskararen normalizazioa lortzeko.

Ondotik, gizarte eragileek Bai Euskarari Akordioa sinatu zuten.

## FLASH

## Etixerako egur loteak

Apirilaren 22an izandako Baztango Batzar Nagusiak, aitzineko urteotan egin ohi den bezala, Nafarroako Gobernuko mendi zerbitzuari etxerako egur loteak prestatzeko beharrezkoak diren arbolak markatzeko eskaera luzatu zion. Egur lotea Baztanen erroldatuak dauden biztanleei soilik emanen zaie 6 euroren truke. Aurten, aipatutako egur loteen eskaera gauzatzeko epea, uztailearen 1etik abuztuaren 31ra egingen da. Egur lotearen eskaera Udaletxeko bulegoetan egingen da. Familia bakoitzak gehienez lote bat eskatzen ahalko du.

## Gartzaingo argiteria

Nafarroako Gobernuak 11.535,32 euroko dirulaguntza emanen du Gartzaingo argiteria jartzeko. Proiektua 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planean sartu da. Kontrata bidezko lanen aurrekontua 15.207,65 eurokoa da eta proiektua eta zuzendaritza gastuak 1.099 eurokoak. 16.306,65 euroko aurrekontu oso-osorik finantziatzeko modukoa dela uste du Toki Administrazioak eta %70,74ko dirulaguntza ematea erabaki du, hasieran aipatutako kopurua.

## Arraiozen arazoak autoen abiadurarekin

Auto batzuk herritik pasatzerakoan duten abiadurarekin arrenkura azaldu dute Arraiozko bizilagunek. Saihesbidean aitzintzerik ez denez, kamioiak aitzintzeko herritik sartzen dira autoak, batzutan orduko 120 kilometrora.

**ORDOKI LIKOREAK**  
ERRETEGIA

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

*Eskisaroi*  
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
ELIZONDO

**Gierreserena**  
OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**BAZTAN**

## Santxotenaren Bozateko museo berria ireki zuten uztailaren 3an

32.000 metro koadroko eremuan hainbat eskultura ikusten ahal dira

**ttipi-ttapa**

Arizkungo Bozate auzoan Xabier Santxotek egin duen aire libreko museoaren aurkezpen ofiziala uztailaren 3an egin zen. Biharamonean, jendea zaibaldutza 32.000 metro koadro dituen museo. Xabier Santxotek aurkezpenean adierazi zuenez, «*eskulturak ikusteaz gain, ingurumenaz gozatzeko lekua izanen da*». Aurkezpen ekitaldian, Baztango udaleko lehengo eta oraingo korporazio kideak, Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultur kontseilaria izan ziren.

720.000 euroko aurrekontua izan duen proiektua 2001eko urrian aurkeztu zen eta Nafarroako Gobernuko Principe de Viana erakundeak %70eko dirulaguntza eman zion. Horretaz gain, Balleko Udalen eta zenbait enpresen (Martiko, Iberia,



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

**Amaiurko Komainekomendikobordan behoka batek bi behihartu du amatzat. Luis Jimenez Elizalde eta Maria Angeles Mugika Etxebertz senar-emazteen erranetan, hasieran behi-esnea biberioan ematen hasi ziren, baina behokak ez zuten onartu. Bera, bere kabuz hasi zen askatik ura eta bi behiri erropetik esnea edaten. Esneaz gain, belarra eta pentsua ere jaten du.**

ONCE...)laguntza izan du. Izan ere, ezindu eta itsuendako prestatu dago museo. Guzira 80 eskultura izanen dira ikusgai museo berrian, batzuk –handienak– kanpoan eta bertzeak –egurrezkoak eta busti ezin daitezkeenak– eremuan eraiki diren zortzi bordetan ba-

natuak. Bisitariari oinezko ibilbide proposatzen zaio, bordaz borda. 30 lagunendako lekua duen auditorioa ere izanen da ibilbidean, Santxotenaren eskultura batean eraikia.

Bozateko artistaren ustez, inguruko turismoari bultzada ematen ahal dio museo berriak. Mu-

seo berria Gorrienean 1998an ireki zuen museo etnografikoaren segida dela jakinarazi zuen. Irailaren 15a bitarte asteartetik larunbatera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 19:30etara zabalik izanen da museo. Uda ondotik ordutegia zer bait aldatuko da.



**PERTSONAIA**

**Maria Elena ZABALETA**

**Oronoz-Mugairiko alkatesa berriak ekain hondarrean hartu zuen kargua**

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza lizentziatu berria Enpresaritzan diplomatu da Oronoz-Mugairiko alkatesa berria. «*Herritarrok gure herriengatik lan egin behar dugu, kritika egitea libre eta beharrezkoa da, baina laguntza ere eskaini behar dugu*». Kargua hartu eta biharamonean, Zozaia-Donztebe errepede zati berriaren inaugurazioan izan zen M<sup>a</sup> Elena: «*herritarren bizi-kalitatea aunitz hobetuko da, dudik gabe, baina orain Oronoz ez da lehen bezalako bidegurutzea izanen. Baina jendeak segituko du etortzen, Bertizera datorrena Oronozera ere badator eta*».

**BURKAITZEA**

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
© 948 599280 • URDAZUBI

**Zure publizitatea ttipi-ttapan**  
**948 63 11 88**

**asnáp me**

• GIZARTE ETA LAN ARLOA  
• KONTABLE-FISKALA  
• JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK  
- Garraiok  
- Elektrizitatea  
- Eraikuntza  
- Igeltzerok...

• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK  
• ENPRESA GUZIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak  
- Kontabilitateak  
- IVA eta IRPF  
- Garraioan asosiatuak  
- Diru-laguntza ezberdinak  
- Sozietateen inpostuak  
- Errenta aldatpenak

**DONOSTIA**  
Rosa Semerari, 4 bilaka  
Telef: 948 431823 Telef/Fax: 948 431418  
www.iberia@asnappyme.com

**ELIZONDOKO**  
Santago, 51 bilaka  
Telef: 948 580 584  
elizondoko@asnappyme.com

**BEZCOSA**  
Santago, 1 bilaka  
Telef: 948 282238 Telef/Fax: 948 261944  
bezcosa@asnappyme.com

**ONASKA**  
**ERRETEGIA**

Euskal sukaldaritza  
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • **ELBETE**  
© 948 45 20 88

SENPERE

# Prestigen kutsadurak uste baino kalte gutiago sortu du gure turismoarentzat

Biez-Bat abesbatza elizan ariko da kantuz uztailearen 23an

Franck Dolosor

Prestige itsasontzia-  
ren kutsadurak uste bai-  
no kalte tikiagoak sor-  
tu diozka mementuan  
Senpereko turismoari.  
Gan den hazilaz geroz  
fuel orban ainitz heltzen  
ari da itsas bazterrerat.  
Zikinkeria hunek turis-  
moari kalte eginen ote  
zion beldur ziren turis-  
moko profesionalak bai-  
nan iduriz Senperen be-  
deren ez da halakorik  
gertatuko. Turismo bu-  
legoak dionaz sasoina  
arras ongi hasi da uz-  
tailaren bigarren hama-  
bortzalditik goiti, herri-  
ko hotelak, kanpinak eta  
apartamenduak bete  
beteak izanen direlako  
hasian bezala. Uztail  
hastapenean, jende gu-  
ti egon da herrian ba-  
kantzak 8an hasi zire-



Primetan jende ainitz bildu zen uztailearen 2an. Bertzalde, Rabbi Jacob ere herriko bestetan izan zen giro ezin hobea emateko! Sancéo jaun-andereek urrezko eztaiak ospatu zituzten errearoaren 20an. Zorionak.

lako. Udatiar gehienak  
aste huntan etorriko  
zaizkigu beraz. Herriko  
turismo bulegoko langi-  
leek informazio eske ibil-  
ki diren 300 lagun har-  
tu dituzte janeko beren  
bulegoan, iaz bezala.

Hemendik goiti gero eta  
lan haundiagoa izanen  
dute uztailearen 14tik eta  
agorrilaren 25a arte ho-  
tel eta akanpaleku gu-  
ziak beteak izanen di-  
relakotz.



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE



## Animazioak eta ikusgarriak

Urte guziz bezala,  
animazio ainitz izanen  
da herrian uda huntan.  
Basusarriko Biez-Bat  
koralaren kantaldia en-  
tzuten ahalko da elizan  
23an asteazkenarekin  
gaueko 21:30etan. Xa-  
vier Heutyk zuzentzen  
duen 30 kantariko talde  
hunek kantu polifoniko-  
ak eskaintzen ditu lau  
bozetan. Duela 18 urte,  
Euskal Herriko koral  
amateur onena izenda-  
tu zuten.

Uztailearen 24an al-  
diz, euskal indarjokoak  
ikusteko parada izanen  
da errebotean.

Bertzalde, beti be-  
zala eta uda osoan behi  
lasterketak eginen di-  
tuzte astelehenetan, Zi-  
rikolatx taldearen eus-  
kal dantza emanaldiak  
asteartetan eta pilota  
erakustaldiak ortziralet-  
tan, 21:30etan.

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAJARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**Ahatekietan adituak eta arituak**  
Martiko S.A. Pol. Zalaia, s/n. 31780 Bera, Navarra  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

**bentamiguel**  
dantza, jatetxea eta ospakizunak

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Taldekak  
Ukurrak  
Jantokizak  
Unaiategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209



## SARA

# Sarako Izarra pilota elkarteko ekipa batzu finaletan

Frantziako txapelketaren azken faseendako kalifikatuak dira

### Ihintza, Angela eta Eneko

Aurten, Sarako 3 ekipa gazte Euskal Herriko txapelketako finaleira iritsi dira. Benjamin mailan, Joko Garbin

Etxegarai, Petin eta Elhorgaren ekipa Baigorri-1 ekipari nagusitu zaio 40 eta 21, txapela eskuratu.

Jakin behar da 46 urtez ez zela izan Saran

titulurik Joko Garbin. Kadete mailan, esku-huskan, Jauregi-Paterne ekipak galdu du Donapaleuko ekipa baten kontra 30 eta 13.

Juniorretan, esku-huskan ere, Juanena-Indarra ekipak ere galdu du 30 eta 19 itsasuarren kontra. Sarako hiru ekipa horiek, Frantziako Txapelketaren azken faseendako kalifikatuak dira.

### **Euskal Presoak Euskal Herrirat**

Uda huntan ere, euskal preso politikoen aldeko elgarretaratzeak egiten direla hilabetezko azken ostiraletan, zapiak eta erdietan, plazan.

### **Pottokaren eguna**

Uztailaren 26an iraganen da, eta aurten goarekin zortzigarren aldia beteko du. Ehun buru bilduko dira eta bertze ikusgarrien artean berrehun lagundako zikiro jatea ere izanen da.



ARGAZKIA: GÉROME

### **Urtxolaren ber idekitzea**

Duela bi hilabete etsi zuen Benta Urtxolak eta sei hilabete lan egin ondotik, Christophe Pradines, lehen Benta Berriko sukaldariak ostatu-jatetxea ideki du uztailaren 4an. Jende multxoa hurbildu zen idekitze hori ospatzera.

Uztailaren 11n hasi da jatekoa zerbitzatzeko, espezialitate bezala plantxan erretako haragi eta arrainekin. Menu berezi bat proposatzen du eta horrez gain, posible izanen da ere taldeentzat plater desberdin batzu manatzea aitzinetik. Egunero izanen du idekia udan eta iraila arte, eguerdi eta arratsetan.

## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI



Urteroko itxuliarekin kunplutuz, ekainaren 7an San Migelek bisita izan ginuen. Urte batzuetatik hunat ohitura franko aldatu da: lehen Martineraingo ateratzen zen jendea, apeza buru zutela, han aingeruari ongi etorria emateko, eta ondotik Bixkarreko kaskoraino prozesioan gaten zen handik lau haizetara bedekazioak botatzeko. Orain dena eliza inguruan egiten da, baina hala ere, aingeruaren bisitak betiko ilusioa sortzen du.

# Musika ikuskizuna abuztuaren 12 eta 13an

Lezeetan izanen da, Donostiako Musika Hamabostaldiak antolatua

### Koro eta Margari

Ikuskizun horietako batean Falla musikariaren "El amor brujo" estrenatuko da, eta musikarekin batera koreografia ere antzestuko da Rafael Amargo *bailo*arekin. Bertze egunean, euskal folklorea izanen da eta Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako "Argia" taldeak "Pas de Basque" dantza ikuskizuna emanen du.

### **Jatetxe berria**

Uztailaren 4an inauguratu da jatetxe berri bat Zugarramurdi. Orain arte "Urtxola ben-

ta" bezala ezagutu duguna itxi da eta nagusi berri batek hartu ondotik (Christophe Pradine, sukaldari saratarak) ostatu eta jatetxea bihurtu du.

### **Gaupasako afaria**

Gaupasako antolatzailuek jakinarazi nahi dute, egun horretan lan egin zutenendako antolatzen den afaria uztailaren 19an (larunbata) egiten dela "Armua" jatetxean. Beti bezala musika eta guzti antolatua da, Andre Mari bes-tetako giroan pittaka-pittaka sartzen gateko.





**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua**  
**Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

## AZKAIN

# Udako giroan emeki sartu da herria

Orai arte udatiar gutti agertu dira ostalerren arabera

## Ihintza, Angela eta Eneko

Bertze urteetan bezala herriko elkarteek uda baliatuko dute ikusgarriak eta animazioak eskaintzeko. Ekainetik irailera egitaraua ongi betea da, egun guziz ekitaldi bat bederen antolatua baita, hala nola dantza ikusgarriak, pilota partidak, koralak elizan, atun bestak Bil Tokin, pilota partidak, tokiko produktu salmentak eta Landesetako behi ikusgarriak FNA-CA-n.

Aurten lehen aldikotz argazki eta zinema burtsa antolatu zuten Uztailaren 13an igandearekin kiroleko polikiroldegian.

Antikitatearen saloia eginen da ere Uztailaren 25etik 27-rat.

Ostalerren arabera aldiz udatiar gutti azal-

du dira uztailleko lehen asteburuetan. «Bazterrak kalme» zirela zion batek. Egia erran ikasketxeetan Uztailaren 8a arte aritu dira azken ikasleak eta behar bada ondoko egunetan turista gehiago ikusiko da. Bainan iragan urteari konparatuz, egoera berdina baitzen lan gehiago egin omen zuten jantegi, ostatu eta hoteletan.

## Dantzaldirik ez uztailaren 14an

Uztailaren 14an errepublika besta ospatzeko ohitura baita frantziako herri gehienetan, Azkainek ere dantzaldi baten antolatzeko usaia zuen egun hartan.

Bainan urtero gero eta jende guttiago hurbiltzen baitzen egun hartan, aurten besta Komiteak deus ez egiteko



ARGAZKIA: ENEKO

Amaia eta Andoni Txalaparta emanaldi batean Serreseko pilota plazan.

erabakia hartu du. Atun besta bat antolatua izanen da aldiz Bil Tokin gau hartan.

## Serreseko bestak uztailaren 26an

Jakubeen karietarat Serreseko plazan ospatuko dira auzoko bestak uztailaren 26an. Palantxa lehiaketaren finala mezaren ondotik jokatu da. Hortik aintzina hasiko da zikiro haundia xapitoaren azpian, dantzaldiarekin.

Aurten Belardi talde-

ak Kaperan eskaini beharko luke kantaldia duela urte zombait egin izan zuten bezala, ortzirala arratsarekin.

## Azkaingo bestetarako diru eskeak hasi dituzte gazteek

Aurtengo egitaraua atera berria du besta komiteak. 14an hasiko dira arratsaldearekin eta 17an bukatuko igande arratsarekin dantzaldiaren ondotik. Ez da errebestarik izanen aurten ere ez luzaz egina

izan zen bezala. Berrikuntza batzu somatzen ahal dira animazioaten: Oskorri taldea ortzirale arratsarekin, Azkainen kantuz larunbat arratsarekin, eta Lesaka eta Azkain arteko pilota desafioa Igandearrekin.

Besta horien antolatzeko gazte talde pollita aritu da lanean karraskan urtean zehar eta hilabete honetan eske ibilki dira auzoz auzo dirua biltzekotan.

Azkaindarrek ongi etorria egin diezaiela.



## SOULE

### Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583  
ARIZKUN



## DROGUERIA MOLINERO

DROGERIA  
LURRINDEGIA  
OPARIAK

2.000 kolore  
baino gehiago lortzen ahal  
duen makina  
10 minututan  
zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat  
prezio berezia

Iturlandeta, 6 • © 948 63 02 40 • BERA



SALMENTA  
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA  
(Sarrera Beratik)



## EZKONTZAK

**David Garate Olondriz** eta **Yolanda Apeztegia Andresena**, Irurita eta Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 21ean.

**Unai Meoki Goñi** eta **Miren Josune Ballarena Urrotz**, Elizondokoak, ekainaren 28an.

**Jon Ibarrola Idoate** eta **Begoña Iturria Oronoz**, Iruña eta Iruritakoa, uztailaren 5ean.

**Fermin Altzuguren Sanzberro** eta **Amelia Pajares Arana**, Etxalarkoa eta Barakaldokoa, uztailaren 6an.

**Jose Luis Perez Perez** eta Ana Maria Godoi Murillo, Leitzan 2002ko urriaren 19an.



## SORTZEAK

**Ane Bailon Iturralde**, Elizondokoa, ekainaren 21ean.

**Olaia Mendiburu Telletxea**, Elizondokoa, uztailaren 2an.

**Aiert Iparragirre Etxarte**, Etxalarkoa, uztailaren 1ean.

**Estitxu Gachen**, Sarakoa, ekainaren 22an, Iduzkiarreko bordakoa.

**Haizea Alli**, Sarakoa, ekainaren 30ean Naroa Erbiti Goienetxe, Leitzakoa, ekainaren 19an.



## HERIOTZAK

**Maria Fagoaga Etxenike**, Zugarramurdin, uztailaren 2an, 93 urte.

**Constantino Arburua Sobrino**, Beran, ekainaren 29an, 87 urte.

**Angel Sanzberro Alberdi**, Almandozkoa, ekainaren 30ean, 81 urte.

**Agustina Zugarramurdi Borda**, Arizkungoa, uztailaren 3an, 81 urte.

**Maria Jesus Mikelarena Mikolaurena**, Gartzaingoa, uztailaren 5ean, 84 urte.

**Constantino Arburua Sobrino**, Igantziakoa, 87 urte.



**Eskela eta eskertzak**  
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



**TANATORIO BAZTANDARRA**  
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
Urdazubi eta Zugarramurdin  
24 orduko zerbitzua tanatorioan  
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704



## TXIRRINDULARITZA

# Nafarroako mendi bizikleta jautsiera txapelketa Igantzin burutu zen

Xabier Telletxea igantziarra eta Miriam Blas beratarrak txapelak

A.A.

Ekainaren 28an burutu zen Igantzin, Biltoki elkarteak antolatutako Nafarroako mendi bizikleta jautsiera txapelketa. Laugarren aldian da txapelketa hau jokatzeko delako lehendabiziko biak Beran egin ziren eta azken biak Igantzin. Guzira 30 bat txirrindulari abiatu ziren, Frain kaxkotik eta Igantziko mediku kontsultan akautu zen ibilbidea. Elite mailan, Xabier Telletxea igantziarra izan zen txapelak (3'09"), Gaizka Juaristi (3'25") eta Ruben Pascualen (3'27") aitzinetik. Telletxea txapelak izan zen duela bi urte ere Beran, baina iaz bere herrian jokatu zen txapelketan erori eta ezin izan zuen maillot gorria jantzi. Oraingon, herritarren aitzinean garaipena eskuratu ahal izan zuen.

**MIRIAM BLAS**  
ESPAINIAKO  
TXAPELKETARA

Emakumeetan Miriam Blas beratarrak izan zen partehartzaile bakarra eta beretzat izan zen Nafarroako txapelakunaren maillota (3'40"). Miriam Blas Espainiako Kopan parte hartzen ari da. Pontevedran irabazte suertatu zen, Asturiasen hirugarren izan zen eta Lleidan bigarren. Azken proba iraillean eginen da Bilbon. Caixa Galicia FECT taldean ari da aurtengo



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Xabier Telletxea igantziarrak elite mailako txapelketa irabazi zuen. Joan den urtean erori egin zen eta ezin izan zuen proba akautu.

riam: «Horrelako laguntza nahitaezkoa du, bertzenaz ezin izanen bainuen nire afizioarekin segitu... materialen bakarrik 6.000 euro gastatzen ditugu, bidaiak eta hotelak kontuan hartu gabe».

Heldu den denboraldiari begira, Munduko Kopako proba guzietan parte hartu nahiko luke. Aitzinetik, ordea, igandeko honetan, uztailaren 20an jokatu den Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Garzteen kategorian ezberdinetan, Bera aldera joan ziren txapelak guziaz. 23 urtez behetik mailan, Eneko Ado izan zen bizkorrena, denbora bikainarekin (3'16"). Junior mailan Iñigo Iantzi izan zen onena, Hegoi Ado eta Igor Petrirenaren aitzinetik. Kadetetan, Andoni Martikorena suertatu zen garaile, Iñigo Blas eta Ugaitz Adoren aitzinetik. 30 urtez goitiko kategorian, azkenik, Juan Manuel Navarro gailendu zen.

## NAFARROAKO MENDI BIZIKLETA JAUTSIERA TXAPELKETA

### ELITE

1. Xabier TELLETXEA	3'09"
2. Gaizka JUARISTI	3'25"
3. Ruben PASCUAL	3'27"
4. Jorge SOTO	3'30"
5. Mikel LOPEZ	3'31"

### EMAKUMEAK

1. Miriam BLAS	3'40"
----------------	-------

### SUB-23

1. Eneko ADO	3'16"
2. Alberto FERRERAS	3'26"
3. Igor ESCUDERO	3'39"
4. Alex PARRA	3'54"
5. Garikoitz LUCIO	4'19"

### JUNIOR

1. Iñigo IANTZI	3'16"
2. Hegoi ADO	3'21"
3. Igor PETRIRENA	3'44"

### KADETEAK

1. Andoni MARTIKORENA	3'23"
2. Iñigo BLAS	4'23"
3. Ugaitz ADO	4'35"

### 30 URTEZ GOITI

1. J.M NAVARRO	4'02"
2. Gorka ARANBURU	4'06"
3. Ernesto ALFONSO	4'25"

## FLASH

### Eskuz banakako finala uztailaren 20an Donostian

Ibili eta buelta, azkenean igande honetan, uztailaren 20an, jokatu da eskuz banakako txapelketaren finala. Aimar Olaizola goizuetarra eta Patxi Ruiz izanen dira aurrez aurre Donostian Atano III pilotalekuan, 17:00etan hasiko den jaialdian. Jakina denez, Olaizola II.ak arazoak izan ditu bere eskuin beso sendatzen, baina badirudi iganderako saioan izanen dela.

### Doneztebeko IX. paleta-goma txapelketa

Luismi Apezetxea eta Patxi Ganboa doneztebarrek irabazi dute Erreka elkarteak berderatzigarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketa. Ekainaren 28an jokatu den finalean 30-23 irabazi zieten Susperregi eta Dagerri. Hirugarren posturako partidua lehian Larralde eta Berhok 30-19 irabazi zieten Juanikorena eta Sorzabalberri.

### Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketa

Uztailaren lehen aste honetan abiatu zen Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketa. Sei herri ari dira, bi multzotan banatuak. Lehen multzoan, Leitzarekin batera Azkoitia eta Erorri ari dira. Bigarren multzoan, Baztanekin batera, Araia eta Hernani. Euskadi, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioek eta Nafarroa Garaiko Belate Euskal Pilota Elkarteak antolatuko dute txapelketa.

## HERRI KIROLA

# Iparraldeko Joku Torneoaren txapeldunak erabaki dira

Hiru jardunalditan hainbat kiroletan aritu dira

A.A.

Etxaurin, Saldiasen eta Mugiron ekainean jokaturako hiru jardunalditan erabaki dira Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Iparraldeko Joku Torneoaren irabazleak.

Kokkor biltzen, hiru jardunaldi jokatu baldin badira ere, puntuatzeko orduan bi denborarik onenak hartu dira kontuan. Pronostikoak betez, Fernando Etxegarai beratarra izan da garaile (12'55"), Berriozarko Roberto Larranura (13'10"), Iñaki Ekisoin (13'23"), Josu Jimenez (13'24") eta Jose Antonio Lopez (13'42") gibelean utzita. Bortz kirolari hauek Nafarroako kokkor biltze txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu dute. Iñigo Lasaga eta Jaime Etxegarai beratarrak final horren atarian gelditu dira, seigarren eta zazpigarren izan baitira.

Ingude altxatzen, Xabi Sein igantziarra aisa nagusitu da, 183 jasoaldi egin baititu guzira. Garraldeko Josetxo Iriarte 157tan gelditu da.

Harri jasotzen, ehuna kiloko zilindroarekin, kubikoarekin eta bolarekin aritu dira lanean. Patxi Larretxea arraioztarra izan da jaun eta jabe, hiru jardunalditan guzira 11.025 kilo altxatuz. Mikel Lasarte bigarren izan da 9.175 kilorekin eta Beintza-La-



ARTXIBOKOA

**Patxi Larretxea txingetan ez ezik, harri jasotzen ere irabazle suertatu da.**

baiengo Josetxo Urrutia hirugarren, 9.000 kilo altxatuta.

Txinga eramaten ere, Patxi Larretxea izan zen onena. Mugiroko azken jardunaldian txinga saiorik egin ez bazen ere, Etxauri eta Saldiasen egindako lanak bilduz, 32 plaza eta 40 cm. egin zituen kirolari arraiozterrak. Mikel Lasartek 14 plaza eta 17,80 metro

egin zituen, Josetxo Urrutiak 13 plaza eta 2,92 metro eta Xabier Igoak 12 plaza eta 3,13 metro.

Bikoteka egin den lasto altxatze txapelketan, Carlos Sein eta Miguel Angel Etxarte igantziarrek 72 jasoaldi egin dituzte hiru saiotan, Xabi Sein eta Iban Txoperena igantziarrek 68 egin zituzten eta Iñaki Bere-

au igantziarrek eta Asier Bertiz sunbildarrak bertze horrenbertze.

Zaku lasterketan, Berriozarko hirukotea izan da bizkorrena (4'36"). Miguel Angel Etxarte, Carlos Sein eta Iñaki Bereau igantziarrek osatutako hirukoteak bigarren postua eskuratu zuen azken saioan (4'42") eta Garraldakoa hirugarren izan zen.

## PILOTA

# Malerrekako eskuz binakako I. txapelketako emaitzak

Erreka elkarteak Doneztebeko Udalararen laguntzaz lehendabiziko aldiz antolatu du Malerrekako eskuz binakako txapelketa. Finalak San Pedro egunarekin jokatu ziren udal pilotalekuan.

Aurrebenjamin mailan, Errekako Retegi eta Retegik, 18-16 irabazi zieten Errekako Juankorena eta Gargirenari.

Benjamin mailan, final borrokatuan, Huarterluñako Yoldi eta Luanogok 18-17 irabazi zieten Irurtzungo Abrego eta Berazari.

Alebinetan, Irurtzungo Angulo eta Zabaletak 18-6 irabazi zieten Errekako Altxu eta Bereauen ordeztzen Ansoari.

Infantiletan, Lizarrako San Miguel elkarteko Peñar eta Nublak 18-11 irabazi zieten Huarterluñako Azkarate eta Garraldari.

Kadete mailan, Irurtzungo Olló eta Ultzurrunek 22-14 irabazi zieten Huarterluñako Yoldi eta Errekako Sarreatari.

Jubeniletan, Irurtzungo Lazkoz eta Mariñelarenak (hau Barbajeroen ordeztzen) 22-16 irabazi zieten Oberenako Retegi eta Azanzari.

Pilota goxuearekin, azkenik, Goñi eta Iparragirrek 22 eta 16 irabazi zieten, Julio eta Antoni.

